



58. DURANGOKO AZOKA

2023ko abenduaren 6tik 10era



DURANGOKO AZOKA

www.bodegaslauna.com



Launa Selección Familiar Erreserba 2017



Launa Selección Familiar Zuria 2022



Launa Selección Familiar Ondua 2018



Launa Zuria 2022



Launa Ondua 2020



Arabar
Errioxa



TALAIA

Abenduak 8, barikua

10:30 'Zaintzaren hariak'. Felix Arrieta. Elkar. Liburu aurkezpena.

11:00 'Idatzi behar nizkizunak'. Nerea Loiola. Erroa eta Zenbat Gara. Liburu aurkezpena.

11:30 'Gora Euskal Herrientsak'. Asisko Urmeneta.

12:00 'Joxe Azurmendiren pentsamendua gaur'. Lorea Agirre, Haritz Azurmendi, Alaitz Aizpuru, Mikel Urdangarin. Mahaingurua.

13:00 'Nerabeen garrasia'. Osasun mentala aldaketa garaian'. Alberdania. Mahaingurua.

13:30 'Irulegiko eskua'. Aranzadi Zientzia Elkarte. Liburu aurkezpena.

14:00 'Biziakoak'. Juan Carlos Etxegoien Xamar. Pamiela. Liburu aurkezpena.

14:30 'Leitzako dorreak. Nafarroako historia bat Erdi Aroko arotz batek kontatua'. Iñaki Sagredo. Pamiela. Liburu aurkezpena.

15:00 'Ahanzturaren aurkako errezetak. Palestinako emakume errefuxiatuekin Libanon sukaldatzen. UNRWA Euskaditik'. Liburu aurkezpena. Aurkezpena.

15:30 Amillubi baserria, lurra herriari deika (egitasmoa).

16:00 'Sendabelarrek dakitena. Garbiñe Larrea'. Aurkezpena.

16:30 '2024ko Ilargiaren Egutegia'. Jakoba Errekondo. Argia. Aurkezpena.

17:00 'Antilletan galdurik'. Kepa Larrea. Pamiela. Liburu aurkezpena.

17:30 'Tentsio ardatzak, ipar'. Txalaparta. Mahaingurua.

18:30 'Txakomic. Bizkaiko Museoak'. Liburu aurkezpena.

19:00 'Xabier Lete bertsolaria al zen?'. EHUko argitalpenak. Liburu aurkezpena.

19:30 'Letrakartel. Bizkaiko Museoak'. Liburu aurkezpena.

Abenduak 9, zapatua

10:30 'Santa Kruz apaiza/ RUR Robot lantegia. TZ Testu Zaharrak'. Liburu aurkezpena.

11:00 'Txikia eta Ogro operazioa'. Iñaki Egaña. Txalaparta. Liburu aurkezpena.

11:30 'Lizardi: Bihotz begietan eta gainerako olerkiak'. Karlos Otegi. Euskaltzaindia. Liburu aurkezpena.

12:00 'Kultura bat: Berria egunkariaren 20. urteurrena'. Ikuskizuna.

13:00 'Aiako Harria parke naturala eta Jaizkibel'. Sua edizioak. Liburu aurkezpena.

13:30 'Hegazti habiagileen atlasa'. Aranzadi Zientzia Elkarte. Liburu aurkezpena.

14:00 'Erletxo, erletxo, nagusia hil da'. Mertxe Aizpuru. UEU. Liburu aurkezpena.

14:30 'Gidabaimenak euskaraz' egitasmoa. Euskadiko Autoeskolen Federazioa. Aurkezpena.

15:00 Herri Urrats maketa lehiaketa. Aurkezpena.

15:30 'Zaldi bat ihes garrezko zelaian'. Koldo Izagirre eta Gorka Bereziartua. Argia. Liburu aurkezpena.

16:00 'Manaslu neguan'. Alex Txikon. Sua edizioak. Liburu aurkezpena

16:30 'Zure laguna naiz'. Elaia Torres. Liburu aurkezpena.

17:00 'Egungo euskal albuma'. EHUko argitalpen zerbitzuak. Liburu aurkezpena.

17:30 '2024ko Ilargia eta landareak urteko lanen agenda'. Argia. Aurkezpena.

18:00 'Planeta prekarioan. XXI. mendeko krisi eta erresistentzien kronikak'. Pello Zubiria. Argia. Liburu aurkezpena.

18:30 'Euskara orain. Eraginkortasuna helburu', Alberdania. Liburu aurkezpena.

19:00 'Eguraldiaren euskara. Aro-bidaia Euskal Herrian barrena'. Kepa Diegez eta Jorge Gimenez. Alberdania. Liburu aurkezpena.

19:30 'Alain. Jausiz'. 1545 argitaletxea. Liburu aurkezpena.

Abenduak 10, domeka

10:30 Luis Mari de Juan Irastorza. 'Bakardadea'. Alt autores. Liburu aurkezpena.

11:00 'Ño'. Miren Artetxe, Eli Pagola eta Maitane Gartziandia. Argia. Liburu aurkezpena.

11:30 'Maite Idirin, herrigintzan kantuz'. Jokin Apalategi. UEU. Liburu aurkezpena.

12:00 Euskadi Sariak - Irakurketa eta gazteak: Patxi Zubizarreta, Joseba Larratxe, Miren Billelabeitia. Mahaingurua.

13:00 'Munduan barna (Herriak, ipuinak eta giza eskubideak)'. TZ Testu Zaharrak. Liburu aurkezpena.

13:30 'Eric Dycharri. Deus'. Pamiela. Disko aurkezpena.

14:00 'Euskal Herria. La mirada extranjera'. Txalaparta. Liburu aurkezpena

15:00 'Plazas con frontón en Euskal Herria'. Daniel Carballo. Pamiela. Liburu aurkezpena.

15:30 'Raquetistas'. Sans Soleil Ediciones. Liburu aurkezpena.


16:00 'InpAkta, inpaktu sozialerako ikerlanen akta'. EHUko argitalpen zerbitzuak. Liburu aurkezpena.

16:30 Euskadi Sariak - Literatura eta bidaiak: Arantxa Urretabizkaia, Joxe Mari Berasategi eta Ander Izagirre. Mahaingurua.



Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622
www.neumaticosetxebarría.com



265 ekitaldi zazpi gunetan banatuta, eta 950 nobedade Durangoko Azokan

Azaroaren 6tik 10era bitartean, Durango euskal kulturaren topagunea izango da; azaroaren 7a Ikasleen Eguna izango da

DURANGO • A.M./J.G.

Dena prest dago datorren eguaztenean, abenduak 6, Durangoko Azokak ateak zabaltzeko. Landako Guneko stand eta guneez gainera, euskal kulturaren jaia Durango osora zabalduko da. Azokaren aurkezpenean Beñat Gaztelurrutia Gerediagako koordinatzaileak azaldu zuenez, "ilusioz beterik eta euskal kulturaren alde elkarlanean aritzeko prest" daude. "Euskarak eta euskal kulturak gizartearen babesa behar dute, azken boladan euskalgintzak ohartarazi duen moduan. Bultzada emateko norabidean lan egin dezagun denok, gure fantasia gau bateko amets zaputza izan ez dadin", adierazi zuen Gaztelurrutia. Horretarako, Durangoko Azokak egitarau oparoa prestatu du

58. edizio honetarako; guztira, 265 ekitaldi izango dira, zazpi gunetan banatuta. Gaztelurrutia egitarauaren ezaugarri bi nabarmendu zituen: anitza eta gaztea. "Anitza, askotariko estilo eta gaiak topatu daitezkeelako, eta gaztea, inoiz baino jarduera gehiago izango direlako gazteek sorturikoak. Gugaz gura ditugu belaunaldi berriak".

Azoka zenbakitan

Landako Gunearen barruan, liburu, disko eta abarren eskaintza aberatsa egongo da eskura. 257 erakusmahaitan banatuta, 170 partaide izango dira. Euretariko batzuk, autoekoizleen stand berezian. Aurtengo edizioan, 950 nobedade erakutsiko dituzte: 689 liburu, 179 disko edo musika produktu, 44

aldizkari, eta beste 40 ekoizpen. Antolatzaileek musika produktuen hazkundea nabarmendu dute; iaz baino 38 ale gehiago izango dira. Nobedadeen artean, komikiek eta ilustrazioek hartu duten indarra nabarmendu dute.

Azoka Telebistak momentuan gertatzen den guztiaren berri

emango du aurten ere. *Fantasia DA!* izeneko magazina ekoitziko du egunero, eta hainbat kanaletan ikusi ahal izango da: tokiko teletelastetan, azokaren webgunean eta Youtuben.

Doako autobus zerbitzua martxan egongo da Iurretako autopista irteerako parkinetik Landako

inguruko Olleria kaleraino, 30 minuturo (abenduaren 10ean ez da erabilgarri egongo).

Bestalde, abenduaren 10ean, 18:00etan itxiko dira Landakoko ateak, gainerako egunetan baino. Hala ere, gunetako egitarauak martxan jarraituko du iluntzera arte.



Standak prestatzen dabilza Durangoko Landako Gunean, azaroaren 6tik 10era bitartean dena prest egoteko.

*Axola zaiguna zaintzea,
zure esku, gure esku.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus

KARTEL EGILEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Ximon Agirre diseinatzaile hernaniarrak sorturiko *Fantasia DA!* kartelak iragarriko du aurtengo Durangoko Azoka. Fantasiaren ikuspegitik, Azokako euskarri guztiak jantzi ditu. Artista hernaniarrak arte ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean, eta, ondoren, Inprimaketa Grafikoko, Ilustrazioko eta Lanketa Artistikoko Masterra Gaztela-Mantxako Unibertsitatean. Egun, Agirrek musika taldeentzat lan egiten du gehienbat, diskoen azalak, kontzertuetarako kartelak eta bideoklipak sortzen.

Zelan sortu zaizu Azokako kartela diseinatzeko aukera?

Ximon Agirre: Gerediaga elkartetik deitu zidaten. Nire lana ikusi zutela esan zidaten, eta aurtengo leloa *fantasia* zela jakinda eta nire lanak fantastikoak, eta pixka bat frikiak, bada, nirekin gogoratu zirela. Baietz erantzun nuen segituan. Ilusio itzela egin zidan.

Zelan hartu zenuen proposamena? Zer suposatzen du zuretzat Azokako irudia zeurea izateak?

Asko poztu ninduen jakiteak nirekin gogoratu zirela lan hori egiteko. Azken batean, Durangoko Azoka izugarritzko erakusleioa da. Baina, egia esan, aitortu behar dut apur bat larritu ere egin nintzela proposamena jaso nuenean. Azken batean, Azokako irudia egitea erantzukizun handia da. Baina, tira, aurretik ere egin izan ditut lanak Azokarako, eta horrek lasaitasun puntu bat eman zidan. Azokan aurkezturiko hainbat diskoren azalak egin ditut. Beraz, badut lehendik nolabaiteko lotura Durangoko Azokarekin.

Zelakoa izan da sormen prozesua eta zelan planteatu zenuen? Itxarondako modukoa izan da?

Hasieratik argi nuen 3Dn egingo nuela lana. Azkenaldian banuen lanen bat 3Dn eginda, eta errealtate birtualean modelatuta probatu nahi nuen. Gainera, Azokakoei 3Dn egitearen ideia plazaratu, eta ondo iruditu zitzairen. Lehendabizi bozeto batzuk egin nituen eta erakutsi egin nizkien. Ea mundu baten tankerakoa sor nezakeen galdetu zidaten, eta hortik abiatu-

“Azoka izugarritzko erakusleioa da, eta bertako irudia egitea erantzukizun handia”

Gerediaga Elkartearen enkarguz, Ximon Agirre Izko hernaniarrak egin du aurtengo Azokako kartela. Hernaniarrak, 'fantasia' leloa erabilita, "sormen zikloa irudikatu du" bere lanean



Ximon Agirre Izko

Artista multidiziplinarra

HERNANI | 1994

ta azken bozetoari ekin nion. Ondoren, 3Dra pasatzen hasi nintzen, errealtate birtualean. Errealtate birtualean, espazio birtual batean zaude eta aginte batzuekin hor zoaz dena eraikitzen, modelatzen.

Lehenengo aldia zen teknika horrekin lan egiten nuela eta hasieran kostatu egin zitzaidan apur bat. Azken batean, programa ikasi behar nuen, eta gauzak probatu nola egiten ziren. Baina, azkenean,

oso gustura geratu naiz. Honi esker teknika berri bat ikasi dut eta gustatu zait. Aurrerago ere teknika honekin jarraituko dut.

Beraz, pozik geratu zara emaitzagaz. Bai, niretzat erronka bat izan da.

Nire ideia apur bat ausarta zen, baina gogoa nuen hori egiteko, eta badirudi jendea gustatu egin zaiola. Gainera, Azokakoak pozik geratu dira eta, beraz, ni ere gustura.

Diseinu arloan, arte grafikoetan... lan egiten duzu. Momentu honetan, zertan zabilta?

Batez ere, musika taldeekin lan egiten dut. Bideoklipak egin ditut, azkenaldian nahikotxo, eta, batez ere, diskoen azalak eta kartelak egin ditut. Egiten dudana lanik gehiena musikari lotuta dago. Ez dakit diseinatzailea, bideogilea edo zer naizen, baina denerik

Aurretik egin izan ditut Azokan aurkezteko lanak, eta, beraz, izan dut nolabaiteko lotura bat Azokarekin

Nire ideia apur bat ausarta zen, baina gogoa nuen hori egiteko, eta badirudi jendea gustatu egin zaiola

egitea gustatzen zait. Orain, esaterako, kontzertu baterako kartel bat egiten nabil, bideoklip bat ere hasita daukat, eta azal bat ere badut esku artean.

Azoka iragartzen duen irudiaz gainera, zure beste lanik ere ikusiko dugu Azokan?

Ba, kasualitatea da, baina aurten ez. Azken bi-hiru urteetan izan ditut lan batzuk azokan, baina aurten ez.

Amaitzeko, ikusiko zaitugu Durangotik abenduaren 6tik 10era bitartean?

Bai, noski. Ez dakit oraindik zein egunetan joango naizen, baina seguru joango naizela. Azoka bueltan giro polita sortzen da Durangon, eta gogotsu nago Azokatik buelta bat eman eta kontzertuak ikusteko.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko abenduaren 1a
22. urtea - 959. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Oso gustura sentitzen naiz idazten dudana idazten dudan moduan idazten”

Oihane Amantegi zornotzarrak *Cayo Hueso* kaleratu du aurten; abenduaren 6an aurkeztuko du, 17:30ean, Ahotsenean

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Oihane Amantegi idazlea (Zornotza, 1985) Florida iparraldera darama irakurlea *Cayo Hueso* eleberrian. Virgil musika kritikaria eta Maudey jazz abeslaria dira protagonistak, eta hauen enkontru eta urruntzeaz mintzo da istorioa; bere burua 'Kapitain zahar' lez izendatzen duen narratzaileak jasoko du kontakizuna. Joseba Sarrionandiak idatzi du hitzaurrea.

Zer da *Cayo Hueso*?

Leku bat da, benetan existitzen dena. Antilletan dago, Florida hegoaldean. Kontinentetik irteten diren isla segida bat da, Mexikoko golkorantza sartzen den orno antzeko segida bat, eta azken puntua da Cayo Hueso. Azken irla da. Geografikoki ez ezik, literarioki eta historikoki ere leku berezia da, abandonatuta legez dago ozeanoaren erdian; historikoki, Kubatik eta Ipar Ameriketarako bide horretan bertan amaitu dute hainbeste pertsonaiek, natiboek, espainolak, ingelesak... Literarioki ere berezia da idazle eta bohemio asko joan zelako bertara. Leku berezia da, bilatzen nuen atmosfera hori topatzen lagundu duena.

Koordenadak ez dira Ibaiertzeko ipuina-gaz dituen antzekotasun bakarrak.

Bien artean hari bat dago, hari fina, ia ikusten ez dena, baina egon badago. Ezin da irakurri nobelaren bigarren zati lez, ez delako bigarren zati bat, eta elementurik ere ez dagoelako hori horrela ulertzeko, baina batetik bestera modu naturalean bidaiatzen da. Kontatu nuen horretan ere egin daiteke lotura. Idazle beraren luma dago atzean, eta, beraz, atmosferak sortzerakoan idazlearen eskua igarri daiteke, hor dago. Bestalde, bigarren zatia izan ez arren, bidaia baten bigarren kapituluak izan daiteke. Antzeko inguruetan sortu



Oihane Amantegi Uriarte

Idazlea

ZORNOTZA | 1985

ziren ideia biak, eta liburuak oso desberdinak izan arren, antzeko atmosferak batu ditzake.

Lehenengo liburuan heriotza izan zen gai zentrala, eta honetan maitasuna eta desioa dira. Baikorra da?

Ibaiertzeko ipuina-n heriotza zen gai zentrala, dolua zehatzago esanda, baina orain, denboraren perspektibagaz ikusita, askoz ere maitasun gehiago ikusten dut liburu hartan *Cayo Hueso*-n baino. Baita argi gehiago ere, nahiz eta gaia go-

gorragoa den; izan ere, bazeuden elementuak dolu hori gozaten zutenak. Kontrara, honetan gai zentrala maitasuna da; desira edo obsesioa, hobeto esanda; eta nostalgia. Garratzetik gehiago du *Cayo Hueso*-k, edo horrela iruditzen zait niri.

Liburu bietan estilo propioa igartzen da. Gustura sentitzen zara idazten?

Oso gustura sentitzen naiz idazten dudana idazten dudan moduan idazten. Ez dakit horrek zer esan

gura duen, baina ni ahots horretan oso gustura nago, oso emankor eta oso libre emaitzagaz. Eta hori bedeinkazio bat da zentzu batean, hain gustura topatzea norberaren koordinadetan. Geroago eta gehiago joango dela suposatzen dut gainera, ahots edo estilo horren barruan gehiago esperimentatu dezakedalako.

Ibaiertzeko ipuina lanak harrera ona izan zuen. Igarri duzu presiorik *Cayo Hueso* idazterakoan?

Aurrekoa atera nuenean, *Cayo Hueso* hasita nuen, zati batzuk nahiko aurreratuta nituen gainera, eta, beraz, ez dut igarri presiorik. Ez nintzen zerotik hasi, ordurako nahiko osatuta neukan eta liburuko unibertsoa. Oso libre ibili naiz, eta hala izan behar duela uste dut.

“Musika asko entzuten dut eta gero asko disfrutatzen dut hori testura pasatzen”

Joseba Sarrionandiak idatzi du hitzaurrea.

Bai. Edizio prozesuaren parte izan da, nik ez dut ia eskurik hartu hor. Xabier Mendiguren editoreagaz berba egin beharko zenuke. Berak proposatu zion eta Josebak baiezkota eman zion.

Musikak presentzia nabarmena du liburu bietan.

Bai, bietan du protagonismoa, niri asko laguntzen didalako sortzerakoan. Idazterako orduan, iturri askotatik edaten dut, baita musikatik ere. Musikak erreminta ugari du gauzak ateratzeko, eta asko ematen dit, esangura asko duen artea da niretzat, eta asko edaten dut hortik. Beraz, musikari gustura egin diot omenaldi hori. Musika asko entzuten dut, eta gero hori testura pasatzea ere oso polita da. Hala ere, bigarren honetan normala da musikaren presentzia hori igartzeko; azken finean, protagonistak musikariak dira eta eurentzat apropos sortu nuen unibertso guztia. Aurrekoan ere hor zegoen musika, baina beste modu batera, abestiak testuan txertatuta.

Bazabilta idazten?

Ni beti nabil irakurtzen, eta idazten ere bai. Eta gero, magma moduko bat dagoenean, forma ematen diot. Nire kasuan, fase bat dut, obserbazioarena, eta esango nuke hor nagoela orain. Idatzi ere sarri idazten dut; bestela, eskua traketu egiten da.

IZURTZA

NIKOLAS AZOKA

2023ko abenduak 6

🕒 10:00 - 15:00

“Lortu gura dugun Zeker horretara gehiago hurbildu gara lan honetan”

Zeker laukote elorriarrak 'Su hartu bitartean' lan laburra aurkeztuko du Ahotsenean, abenduaren 8an, 20:20an



berriak gehitu ditugu zerrendara, eta erreperitorio osoago bat dugula esango nuke. Jotzen genituen bertsio biak kendu ditugu, baita abesti zaharren bat ere.

Ahotsenean aurkeztuko dugu, eguenean, hilak 8, 20:20an. Zerbait laburra prestatu dugu, EPko abestiekin eta aurreko diskoko abesti pare batez. Durangon kontzertu bat jotzeko dagoen aukera bakarretarikoa da Ahotseneakoa. Nahiko tristea da hori.

Pixontxisek lehenengo kontzertua eman zuen egunetik 15 urtera kaleratu dugu 'Eztanda'; aukera polita iruditu zitzaigun

Aitor Ariñogaz grabatu duzue.

Bai, oso gustura egon gara oraingoan ere, hartu-eman estua dugulako eta berak ere eskua hartu digulako. Konfiantza osoa dugu eta horrek asko laguntzen du.

Pixontxisen garaiko Eztanda abestia ere berreskuratu duzue.

Bai, saio berean grabatu genuen, baina hau geroago kaleratu genuen. Kontzertu askotan jotzen genuen, eta geureganatu egin dugun abesti bat da. Irailean, Elorrioko jaietako eguenagaz batera hamabost urte bete ziren Pixontxisen lehenengo kontzertua eman genuenetik. Aukera polita iruditu zitzaigun abestia kaleratzeko.

Non erosi daiteke Su hartu bitartean?

Durangoko Azokan Musika Zuzeneanen erakusmahaiaren egongo da, aurreko diskoagaz batera. Autogestioaren aldeko apustua egiten duen leku bat da, guk bezala. Elorrioko Portalekua tabernan ere badago salgai. Bestela, gura duenak gure kontzertuetan erosi dezake; ez gara oso saltzaille onak! (barrez). Egia esan, ez da garairik onena diskoak saltzeko; bost euroan ditugu geureak salgai, eta, batez ere, talde txikienezko ekarpen bat dira, laguntza bat.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zeker laukote elorriarrak Su hartu bitartean EP berria kaleratu du 2023an. Durangoko Azokako Ahotsenean aurkeztuko du, abenduaren 8an. 2020an sortua, Pablo Garciak, Paul Urigoitiak, Lander Amorrortuk eta Liher Larrañagak osatzen dute Zeker. Azken honegatz berba egin du ANBOTOK.

Kaliforniara begira ipini zarete lan berri honetan ere.

Aurreko lanean ere zerbait desberdina egin gura genuen, baina oraingoan abiadura gehiago sartu dugu eta lortu gura dugun Zeker horretara gehiago hurbildu gara esango nuke. Gure influentziak

betikoak izaten jarraitzen dute, Bad Religion, Rancid, Descendents... Aurrekoan ere hor zeuden, baina oraingoan argiago. Ez dugu ezer egin behartuta, dena natural irten da. Lan egiteko modua ere errazagoa izan da, EPA laburra izaterakoan.

Berbetan ere igartzen da aldaketa bat.

Lehenengo lanean aldaketa bat egon zen. Zeker sortu aurreko taldeetan erabiltzen genituen gaietatik irten gura genuen, alor pertsonalagora eramanda. EP honetan, norbanakoaren ikuspuntutik idazten da, baina gizarteari begira, hau da, gizartean eragina duten gaiak buruz berba egiten

dugu; adibidez, zelan bizi garen beti erlojuari begira, presagaz. Zure berri izan nahi dut singlea, oster, pertsonalagoa da. Jende bat zure bizitzatik aldentzen dela aipatzen da, eta jende horren falta igartzen dela. Beste kanta batean, polizia-errepresioari buruz abesten dugu. Laugarrenean, egunak pantailari begira igarotzen ditugula diogu, eta inguruan egundokoak gertatu arren ez dugula ezertxo ere egiten. Laneko azken abestian laguntasunari abesten diogu; parranda batean inspiratuta dago. Labur esanda, gizartea zelan ikusten dugun da ardatza, gure ustetan zer gertatzen dabilen eta zein larria iruditzen zaigun.

Pozik zaudete lanak izan duen hareragaz?

Lana uda aurretik ateratzea zen gure asmoa, eta lortu genuen. Jendeak esan digunagaitik, lan honek aurrekoak baino hobeto erakusten du nor eta zelakoak garen. Inguruko musikazaleek esan digutenagaitik ere, lan hau borobilagoa iruditu zaie, zekerragoa zelanbait esateko. Gure ustez, inguruan ez dago gurearen moduko soinua duen talderik, eta aurreko lanagaz ere gertatzen zitzaigun hori.

Zuzenean aurkezten zabilzate orain.

Bai, kontzertu batzuk jo ditugu jada. Nahikoa entseatu dugu eta pozik gaude alde horretatik. Abesti

Smurfit Kappa
Central forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Kappa
Nervión

www.gualbiasesores.com



✓ **Aholkularitza fiskala**

✓ **Kontabilitate-aholkularitza**

✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**

✓ **Lan-aholkularitza**

✓ **Kontu-auditoretza**

✓ **Aholkularitza juridikoa**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxa: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

IRUDIENEA

Abenduak 6, eguaztena

11:00 'Nafar Haziak'. Ortzadar Euskal Folklore Elkarte. Dokumentala.

13:00 'Gure Zirkua heldu da'. ETB. Aurrestreinaldia.

15:00 'Abentura erraldoia'. Familientzat zinema euskaraz (Zineuskadi). Film emanaldia.

17:00 'Arantzazu. 36zm, 5 mende, herri 1'. Asier Lekue. Dokumentala.

19:30 'Bidasoa 2018 - 2023'. Fermin Muguruza. Aurkezpena.

Abenduak 7, eguena

11:00 'Bideoklipa DA!'. Emanaldia

12:30 'Emakume zinemagileak, desgaitasuna eta zaintzak'. Meridiano moreak. Laburmetriak

15:00 'Loa eta Laia'. Telesail musikatua. Film emanaldia.

16:00 'Sustraietatik eraldatuz'. Haur eta gazte literatura eta genero berdintasuna. Dokumentala.

17:00 'Agur Artzai'. Julen Zubiete. Film emanaldia.

18:00 'Kimuak' laburmetriak. Sorbeltza (Iban del Campo), Ximinoa (Itziar Leemans). Film emanaldia.

19:00 LaburmetraiaDA: Vida i miracles d'una papallona (Aitor Alberdi), Txontxongiloa (Sonia Estévez), Malkoak (Sonia Estévez), Erro (Amaia Lejarreta). Film emanaldia.

Abenduak 8, barikua

11:00 'Lagunok!'. Podcasta. Zuzeneko saioa. Estreinaldia.

12:00 'Beita'. Euskarazko webseriea. Talde lana. Aurkezpena.

13:00 Izaro. 'Cerodenero'. Bideoklip emanaldia. Estreinaldia.

17:00 DemaS.A. Sortzaile amateurren arteko dema. Euskarazko laburmetraien final handia. Lehiaketa.

Abenduak 9, zapatua

11:00 'Arnasaldiak'. Iker Martinez de Zuazo. Dokumentala.

11:30 'WikiemakumeOK DOnk'. Josi Sierra. Film emanaldia.

13:00 'Habana Glass'. Jon Aramendi eta Aitor Mendilibar. Film emanaldia.

13:45 'Punkaren beste aldea'. Perlata. Dokumentala.

15:00 'Yuku.' Familientzat zinema euskaraz (Zineuskadi). Film emanaldia.

17:00 'Amari'. Iosu del Moral. Dokumentala.

18:30 'Pizti bat agian'. Ainhoa Gutierrez eta Olaia Gonzalez. Film emanaldia.

Abenduak 10, domeka

11:00 'Durangas'. dokumentala. Talde lana.

12:00 'Abeltzaintza ekologikoarekin dena hobetzen da'. Ekolurra eta Biolur. Talde lana. Dokumentala.

13:00 'Orri zuriak betetzen'. Unai Alberdi eta Eneritz Aulestia. Dokumentala.

15:00 'Asterix'. Familientzat zinema euskaraz.

17:30 'Bizkargin santikurutzak'. Tradizinoa eta memoria'. Dokumentala.

19:00 'Durangaldeko gazteak eta euskara'. dokumentala. Talde lana. Estreinaldia.

Bizkargi Egunari buruzko dokumentala proiektatuko dute Irudienean, abenduaren 10ean

IRUDIENEA • EKAITZ HERRERA

18 herritarren testigantzetatik abiatuta, Bizkargi Egunaren jatorria, ospakizunaren arrazoiak, gertakariak eta bilakaera jaso dituzte *Bizkargin santikurutzak. Tradizinoa eta memoria* dokumentalean. Ikus-entzunezkoak Zornotzako Udala eta Labayru Fundazioa ditu bultzatzaile. Azken honek hartu du dokumentazio lana eta ikus-entzunezkoa sortzeko

ardura. Labayruko zuzendari Igone Etxebarriak dokumentalari buruzko ezaugarri hauek nabarmendu zituen aurkezpenean: "Kontakizun poliedrikoa da, el-karrizketatu bakoitzak bere ikuspuntutik, bere bizipenetatik, kontatzen baitu Bizkargi Egunagazko bere atxikimendua. Erromeria, aldarrikapena, bizipenak, letania erlijiosoak, memoria... horiek guztiak dira Bizkargi", azaldu du.




Bizkargiko irudia.



MAÑARIKO
UDALA

946 818 998
www.mañaria.eus





Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



Iñaki Irasizabal Izagirre
Idazlea
DURANGO | 1969

“Nobela beltzaren eta sozialaren arteko mugatik idaztea interesatzen zait”

Iñaki Irasizabalek *Otsoa etorriko da* lana kaleratu du. Ohikoa duen moduan, nobela beltzaren osagaiekin eratu du istorioa

LITERATURA • EKAITZ HERRERA

Iñaki Irasizabal Izagirrek gizartearen gabeziak argitara ateratzeko bide legez erabiltzen du nobela beltza. Eta badirudi idazlea eroso sentitzen dela eremu horretan, azken lanekin egin duen antzera halantxik garatu du eta bere azken nobela: *Otsoa etorriko da* (Elkar). Nobela laburra den arren, gutxiagaz asko adierazteko abilezia du Irasizabalek. Egunerokoa ohikoak suertatu daitezkeen egoerak eremu ilun eta deserosoetara eramateko trebezia agertu du. Liburu honetan Mainerren istorioa jaso du, ingurutzan duen gizartearen aurrera egiteko zailtasunak dituen 28 urteko emakume baten istorioa.

Bizitzako helduleku guztiak jausita edo jaustear dituen emakume baten kontakizuna osatu duzu. Istorioak badu drama, baina oso errealista egiten da.

Bai. Hori islatzen ahalegindu naiz. Nobela beltzean, protagonista beti dago estu eta larri. Protagonista eroso eta pozik badago, ez dago nobelarik, oraindino gutxiago nobela beltzik. Mainerren kasuan, txiki-txikitatik bizi izan ditu estuasunak. Pobrezia hazitakoa da, aitarik barik. Egoerara ohituta dago, baina halaberharrez.

Nobela beltza da, baina hemen ez dago polizia edo detektiberik. Egunerokotasunean ohikoak diren elementuekin osatu duzu misterio giroa.

Generozko nobela beltza, beldurrezkoa, oso bide estua dela iruditzen zait. Beti idazten dut nobela beltzaren eta nobela sozialaren arteko muga horretatik. Hau da, niretzat hiltzailea nor den argitu behar horrek ez du interesik. Niretzat istorio bat kontatzeko aitzakia da giroa hori, pertsonaia batzuk deskribatzeko, egoera batzuk deskribatzeko.

Mainerren bitartez ikusten dugu pertsona bat indarkeria mota askok inguratuta egon daitekeela. Indarkeria sexista, eskola jazarpena, desagertzeak, ... pertsonaiaren inguruan etengabe agertzen dira.

Mainerrek txikitatik bizi izan ditu horrelako egoerak. Liburuko

momentu batean, protagonistak honako hau dio: "Zergatik dira gauza guztiak hain zailak?". Berentzat egoera arrunta da gauzak zailak izatea. Bereganatuta duen zerbait da eta horren guztiaren ondorioz jokatzan du jokatzan duen eran.

Nobelan zehar behin baino gehiagotan igartzen da gizartearen interpeltzeko asmoa.

Bai, nobela beltzak beti du kritika soziala. XX. mendean Raymond Chandler, Dashiell Hammett eta halako idazle ezkertiarak etorri ziren arte, nobela beltza poliziari loturikoa zen, hiltzailea nor zen argitzea buruzkoa. Idazle horiekin, baina, kontzientzia soziala

etorri zen. Delitua nork egin zuen baino gehiago, zergaitik egin zen kontatzen zuten. Nobela beltzak hori du, gizartearen azterketa edo kritika. Eta neu ere horretan ahalegintzen naiz. Niretzat horixe da nobela beltzaren zatirik erakargarriena. Beltzaren eta sozialaren arteko muga horretan kontatzen dut kontakizun hau, eta beste asko.

Zelan sentitzen zara ingurura begiratu, larriak diren gaiak identifikatu eta horiek kontatzerakoan? Zelan eragiten dio horrek idazleari?

Ingurura begiratzean mila istorio ikusten dut, zoritxarrez, gizarte ez delako batere perfektua, ezta antzekoa ere. Baina ez nuke esango kritika berezirik egiten dudarik. Txarto dagoena azalduko da, modu batera edo bestera.

“Ingurura begiratzean mila istorio ikusten dut, baina ez nuke esango kritika berezirik egiten dudarik”

Mainerrek aitortza baten eran kontatzen du dena. Lehenengo pertsonan.

Mainerrek erabaki batzuk hartu ditu eta badu horiek azaltzeko beharrez, hain zuzen ere ondorio negargarriak dituelako. Hau egin dut, honegatik eta honegatik, eta beste aukera guztiak ez ziren askoz hobekak. Aitorpen moduko bat da, bere burua zuzitzeko balio diotenak. Lehenengo pertsonan kontatzea mugatuagoa da, baina enpatia gehiago sortzen du irakurlearengan.

Baduzu aurrera begirako asmorik?

Bai, baina ezin da liburu bat baino gehiago kaleratu urtean; bestela, zeure buruari egiten diozu konpetentzia. Azken hamar urteotan hamar bat liburu kaleratu ditut. Ez da segurua, baina baliteke datorren urtean ere beste liburu bat argitaratzea. Liburu laburrak idazten ditut, baina emankorra naizela esan daiteke.

ALKI

Dekorazioa eta berriztatze
integralak

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Su ta Gar taldeak kontzertua eman zuen iaz Herri Urratsen.

Herri Urratsek euskarazko musika talde berriei begirako maketa lehiaketa aurkeztuko du Talaiain

Txapelketako saria Herri Urrats jaialdian jotzea izango da. Lehiaketa Talaiain aurkeztuko dute, abenduaren 9an, 15:00etan

TALAJA • EKAITZ HERRERA

Zuberoako, Nafarroa Behereko eta Lapurdiko ikastolen aldeko jaiak egitasmo berri bat iragarriko du Durangoko Azokan: euskaraz abesten duten musika talde berriei

begirako maketa lehiaketa. "Urtero-urtero talde ugari ipintzen da hartu-emanetan Herri Urratsegaz. Denek jo gura dute kontzertua egun horretan. Hori ikusita, aurren, lehenengoz, musika lehiaketa

bat antolatzea pentsatu dugu", azaldu dute antolatzaileek. Euskaraz abesten duten taldeek hiru abesti bidali beharko dituzte *wetransfer* bidalketa sistema bidalita, honako helbide honetara: *herriurrats@ikas-*

tola.eus. Abestiekin batera, taldearen izena, jatorria eta kontaktua bidali beharko dira.

Egitasmoaren xehetasun guztiak abenduaren 9an aletuko dituzten arren, Herri Urrats jaialdiko

iturriek jakinarazi dute abenduaren 3tik aurrera bidali daitezkeela lanak. Urtarrilaren 3ra arteko epea egongo da horretarako. Behin lan guztiak jasota, epaimahaiak otsailaren 2an jakinaraziko ditu irabazlearen edo irabazleen izenak. Saria Herri Urratsen bertan jotzea izango

Talde parte hartzaileek hiru abesti bidali beharko dituzte 'herriurrats@ikastola.eus' helbidera

da. Antolatzaileek adierazi dutenez, "euskal musika talde berriei aukerak zabaltzea" da egitasmoaren helburua.

Maketa lehiaketak *Berria* egunkariaren *Badok* ataria du bidelagun. Euskarazko musikari buruzko atariak abestien zerrenda bat osatuko du txapelketara aurkeztu diren talde guztiekin.

Herri Urrats, maiatzaren 12an

Ipar Euskal Herriko ikastolen aldeko jaialdia maiatzaren 12an bueltatuko da Senpereko lakura, *Ortzadarra* lelopean. Jaialdiaren 41. edizioa izango da. Neomak taldeak egingo du aurtengo abestia, eta baturiko dirua Beskoitzeko ikastola (Lapurdi) egonkortzeko izango da. Maiatzeko bigarren domeka heldu

Non jan, zer egin eta non lo egin Bizkaian

disfruta BIZKAIA

Bizkaiko Ostalaritza Elkartearen webgune turistikoa.

@disfrutabizkaia
www.disfrutabizkaia.com

Jon Ander
Urresti Ugalde

Antzerkigilea

BERMEO | 1992

“Antzezlana hartu-eman toxiko baten inguruko istorioa da”

laz Durangoko Azokako Sormen Beka lortzeari eskerrak, Jon Ander Urrestik *Eukalyptus* antzezlana sortu du bere lantaldeagaz, eta Szenatokian aurrestreinatuko du, abenduaren 8an

SORMEN BEKA • JOSEBA DERTEANO

San Agustin Kultur Guneako aurrestreinaldi egunean emanaldi bikoitza izango du; 12:30ean bertsiio laburtu bat, eta 17:30ean obra osoa. Antzezlana eukaliptoaren monolaborantzari buruzko hausnarketa eragiteko osagaiak ipintzen ditu mahai gainean.

Obra hau posible izango litzateke Sormen Beka barik?

Ez dakit. Beste hiru-lau deialditara aurkeztuko nintzela uste dut. Hori bai, Durangoko Azokako bekari eskerrak, gero Udalbiltzakoa lortu dut, eta Ipar Euskal Herrian beste bat ere lortu dut. Azken bi horiek ez dakit posible izango ziren Durangokoa barik. Proiektuak Durangoko Azokako zigilua izatea ate handi bat da, beste ate asko za-

baltzen duena. Oihartzun handia ematen dizu.

Zergatik eukaliptoer buruzko lana?

Bizkaian eta Bermeo inguruan eukalipto oso presente dugu. Dibertsitate ezak eta monolaborantzak eragiten duen ahultasuna deskubritu nuen unean, buruari bueltak ematen hasi nintzen eta horregaz zeozer egin zitekeela pentsatu nuen.

Antzezlana zeintzuk gai lantzen ditu?

Orokorrean, eukaliptoak hemen izan duen ibilbidea erreparatzen dugu eta gai desberdinak ukitzen ditugu. Hasieran, exotiko izateari buruz berba egiten dugu: zer den exotikoa izatea eta zer ez. Gero, gaian sakontzen dugu. Eukaliptoak eginiko ibilbide fiktizio bat

erakusten dugu: zelan ekarri zuten Australiatik hona, zelan hedatu eta finkatu zen hemen. Gero, zati historiko bat dago. Ez dut esango antzerki-dokumental bat denik, baina bai nahiko dokumentatuta dagoen antzerkia dela. Gaur duguna ulertzeko historikoki gakoak diren uneak daude. Esaterako, karlistadetan zelan saltzen ziren lur komunalak lur pribatu bihurtzeko. Lehenengo, pinuaren fasea hasi zen, eta gerora eukalipto etorri da. Eukalipto sartzea frankismoaren propaganda izan zen. Errentagarriak ez ziren lurrak errentagarri bihurtzeko modu bat zen. Antzezlana aurrera egin ahala, gaur egungo ustiapenean eta baso ereduak sakontzen dugu. Eta antzezlana une batean, gaur

egungo kontsumoa ere aztertzen dugu. Zelulosa ikaragarri kontsumitzen da.

Zelan erakusten dituzue gai horiek eszenatokian?

Pertsonaia nagusi bi daude. Eszenetan guk erakusten dugunaren eta lurraren kudeaketaren arteko paralelismo bat sortzen ahalegintzen gara. Adibide zehatz bat ipintzeko, antzezlanean ni proiektuko ugazaba naiz eta Beñat Urrutiari deitzen diot niretzat lan egin dezan. Ustiatu egiten dut nik etekin bat lortzeko, eukaliptoagaz egin izan dugun antzera; lan hartu-eman dugu beragaz. Eukalipto beste lurralde eta testuinguru batetik ekarri genuen, etekina lortzeko arrazoi bakarragaz. Antzezlana hartu-eman toxiko baten inguruko istorioa da.

Antzezlana mezu bat utzi gura du ala helburua gehiago da elementu desberdinak plazaratuta gogoeta sortzea?

Posizionamendu bat dago, ez gara toki neutro batean geratzen, baina gaiak ertz konplexuak ditu eta eura bistaraten ahalegintzen gara. Pertsonaiak ez dira bat ona eta bestea txarra. Azkenean, gaian dokumentatzeko, arlo askotako jendeagaz batu gara. Kontraesanak plazaratzen ditugu. Esaterako, euskaldun kontzientziatuak zelan gero berdin-berdin kontsumitzen duen. Edo eztabaidarako elementuak sartzen ahalegintzen gara. Esaterako, eukaliptoaren monolaborantzaren orde bertoko basoak behar ditugu benetan? Izan ere,


geroago eta belar gutxiago dugu. Beharbada belar eremuak gehitu beharko genituzke. Hau da, XIII. mendetik aurrera Euskal Herrian azalera basotu gutxi izan dugu. Beharbada sarritan idealiziorako joera dugu. Antzerki hau eztabaidaren hasiera izatea gura genuke, ez horrenbeste amaiera. Goazen denok ditugun ardurak mahai gainean ipintzera eta eztabaidatu dezagun.

Formatuari dagokionez, antzerkia eta dantza darabiltzazue.

Bai, Beñat dantzaria da. Baina dantza ez da koreografia lez ulertu behar, gorputzaren mugimendu lez baino. Gorputzak erabilera desberdinak ditu eta mugimendua asko erabiltzen du, baina diodan zentzuan. Une batean sustrai bihurtzen da, beste batean bulldozer... Ez nuke esango antzezlana antzerkia eta dantza denik, bien artean dagoen zeozer baino.

Durangoko Azokako aurrestreinaldian emanaldi bikoitza izango duzu abenduaren 8an. Urduri zaude?

Bai. Azken batean, sortzaileak naren erdia egiten du. Beste erdia publikoak. Obra ez dago konploto publikoagaz zelan funtzionatzen duen ikusi arte. Apur bat urduri nago, baina baita gogotsu ere. Gauza batzuetan asmatuko genuen, beste batzuetan beharbada gutxiago... Aurrestreinaldiaren ondoren, moldaketak egon daitzke. Estreinaldia Aulestian da, urtarrilaren 19an. Hortik aurrera, 17 bat saio ditut lotuta, Udalbiltzari eskerrak.



Beñat Urrutia antzezlana une batean. DURANGOKO AZOKA



Ate irekiak urte osoan

BANAKAKO BISITAK
Eskatu hitzordua:
94 681 00 50 edo
sanjose@durangojesuitak.org
(0 urtetik 18 urtera)

www.durangojesuitak.org •   

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

*Ohiko saltokietan
salgai*

2024

Durangaldeko egutegia

- ABADIÑO** Petite
Abadiñoako estankoa
- ATXONDO** Kiosko Atxondo
- BERRIZ** Egunon okindegia
- DURANGO** Etxebarria prentsa denda
Hitz Liburudenda
- ELORRIO** Tximeleta gozoki denda
- GARAI** Herriko taberna
- IURRETA** Iurreta kopistegia
- IZURTZA** Herriko taberna
- MAÑARIA** Herriko taberna Talka
- MALLABIA** Herriko taberna
- OTXANDIO** Korostondo janari denda
- ZALDIBAR** Imendia prentsa denda
- ZORNOTZA** Ayerdi prentsa denda



Bixente Kapanaga, 9 · IURRETA
Tel.: 946 816 558 · anboto@anboto.org · www.anboto.org



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

GAZTE EZTANDA

Abenduak 8, barikua

14:30 **Bazkaria** Landako eskolan.16:30 **Bingo musikala** Landako eskolan.22:00 **Katu! eta Dj MadariKatuak**, Landako plazan.

SZENATOKIA

Abenduak 6, eguaztena

12:00 **FANTASIA DA! Inaugurazio ekitaldia** (gonbidapenagaz).17:00 **'Hamalau'**. Mikel Martinez. Bakarrizketa.17:30 **'Euskaldungak'**. Taulelak. Antzerkia.18:00 **'Hamalau'**. Mikel Martinez. Bakarrizketa.18:30 **'Euskaldungak'**. Taulelak. Antzerkia.

Abenduak 7, eguena

11:00 **'Antzerki sorkuntza partekatzen'**. Tailerra17:00 **'Heroiaren mina'**. Gaizka Chamizo. Bakarrizketa eta pole dance.17:30 **'Duzhe Dobre'**. AmaHiru konpainia. Antzerkia.18:00 **'Heroiaren mina'**. Gaizka Chamizo. Bakarrizketa eta pole dance.18:30 **'Duzhe Dobre'**. AmaHiru konpainia. Antzerkia.

Abenduak 8, barikua

12:30 **'Eukalyptus'**. Jon Ander Urresti. Sormen beka DA! 2022. Antzerkia. Bertsio laburra.17:30 **'Eukalyptus'**. Jon Ander Urresti. Sormen beka DA! 2022. Antzerkia. Aurrestreinaldia.

Abenduak 9, zapatua

12:30 **'Generorantz'**. Kimua DK. Dantza.13:00 **'Euskaldunen jatorria, historia eta irria'**. Txiki. Bakarrizketa.13:30 **'Txizatoki bat eszenatokian'**. Patxo Telleria. Bakarrizketa.17:30 **'Generorantz'**. Kimua DK. Dantza.18:00 **'Euskaldunen jatorria, historia eta irria'**. Txiki. Bakarrizketa.18:30 **'Txizatoki bat eszenatokian'**. Patxo Telleria. Bakarrizketa.

Abenduak 10, domeka

12:30 **'Gordinak'**. Ane Zapirain eta Alicia Rechac. Dantza.13:00 **'Txilin hotsak'**. Les Bobé Bobé. Antzerkia.17:00 **'Gordinak'**. Ane Zapirain eta Alicia Rechac. Dantza.

KABIA

Abenduak 6, eguaztena

10:30 **'Bziber egitasmoa: TikTok eta Euskara'**. Aurkezpena.11:15 **'Zortzi erronka digital eta adimen artifizialaren aplikazioa hezkuntzan'**. Mahai-ingurua.12:15 **'Noiz eta nola eman behar diegu nerabeei lehen mugikorra?'**. Aurkezpena.13:00 **'Paperjale: euskal irakurleak eta liburu maitaleak batu gaitezen!'**. Aurkezpena.13:30 **'Liberiforms: pribatutasuna zaintzen duten galdetegi etikoak'**. Aurkezpena.14:00 **'Teknologiaren Inguruko Eztabaida Kritikoa Pizteko Eraskuketa'**. Aurkezpena.14:30 **'Errealitate birtualarekin sorturiko bideoklipa'**. Tailerra.16:00 **'LUP: adimen artifiziala erabilia, modu autonomoan irakur dezakeen lehen lupa'**. Aurkezpena.16:45 **'Aloka: profesionalen artean ikus-entzunezko materiala alokatzeko plataforma'**. Aurkezpena.17:30 **'AAA (Adimen Artifiziala Auzitan) Ideia'** deialdiaren irabazleak. Aurkezpena.18:45 **'Zure eskutik helduta'**. Errealitate birtualagaz sorturiko bideoklipa. Aurkezpena.19:15 **'Orlegia irratia: Fikzio espekulatiboa'**. Aurkezpena.

Abenduak 7, eguena

10:30 **'Nire lehen bideojokoa'**. Tailerra.12:00 **'Gamer Gela (Game Erauntsia + Rolariak)'** Topaketa.16:00 **'Gamer Gela (Game Erauntsia + Rolariak)'** Topaketa.


Atxondo
Abenduak 3

XXVI. Artisau eta nekazal azoka
Produktuen erakusketa eta salmenta

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA 

ESKAINTZA:
0 urtetik 18 urtera bitarteko
hezkuntza eskaintza

HELBURUA:
Ikasle eleantz, kritiko eta
euskaldunak

JANTOKIA:
Bertokoa, sasikoak eta
produktu ekologikoak



www.kurutziagaikastola.eus



AHOTSENA

Abenduak 6, eguaztena

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Nogen. 'Aben Cirkel'.

12:10 Konpost. 'Gap'.

13:20 Esanezin. 'Erretratu bat'.

14:30 Lilo. 'Nora goazen jakin gabe'.

15:40 Ziraun. 'Argitik'.

16:50 Postal Kolekzionistak. 'Ezusteko kantak'.

18:00 Akaleia. 'Ondoloin'.

19:10 Yogurinha Borova. 'Amona molona'.

20:20 Marlik. 'Nigan zara'.

21:30 Arima. 'Beldurrez beste egitean'.

Musika Eskola (Solosalduak)

11:00 Esti Martinez. 'Animalia domestikoak'. Elkar. Liburu aurkezpena.

11:30 Bell Hooks. 'Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa'. Itzultzailea: Amaia Apalauza. Katakarak. Liburu aurkezpena.

12:00 Patxi Zubizarreta. 'Sakonean, itsasoa ikusten da'. Txalaparta. Liburu aurkezpena.

13:00 Joserra Senperena. 'Lied koadernoak'. Autoekoizpena. Solasaldi musikatuak.

13:00 Bernardo Atxaga. 'Paradisuren kanpoko aldeak'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

13:30 Marjane Satrapi. 'Persepolis. Itzultzailea: Irene Arrarats'. Elkar. Liburu aurkezpena.

14:00 '2023ko Hatsaren poesia. Askoren artean' (125 euskal poeta). Errezitala.

16:00 Stefan Zweig. 'Gizateriaren izar-uneak'. Itzultzailea: Edorta Matauko. Katakarak. Liburu aurkezpena.

16:30 Libe Goitia. 'Fast Fatum'. Susa. Liburu aurkezpena.

17:00 Aritz Pardina. 'Ibai ahoak'. Balea Zuria. Liburu aurkezpena.

17:00 Oihane Amantegi. 'Cayo Hueso'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 Jon Arretxe. 'Musker amarruak'. Erein. Liburu aurkezpena.

18:30 Iñaki Irazu. 'Zaur zaunkak'. Susa. Liburu aurkezpena.

19:00 Xabier Lasa. 'Ura ez baita beti gardena'. Elkar. Errezitala.

19:30 Eneko Bidegain. 'Bichta eder'. Elkar. Liburu aurkezpena.

Abenduak 7, eguena

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 'Zukan barrutik'. Tailerra.

13:20 Xabi San Sebastian. 'Haize dela ere'.

14:30 Kadira. 'Kadira'.

15:40 Braulio. 'Lur azpira itzuli'.

16:50 Murgi. 'Hain zuzen ere'.

18:00 Moxal. 'Nabar'.

19:10 Zatibi. 'ODD'.

20:20 Zeker. 'Su hartu bitartean'.

21:30 Ezezez. 'Katuzaldia'.

Musika Eskola (Solosalduak)

11:00 'ABERE BA, palindromo ilustratuen piztegia'. Tailerra.

13:00 Estitxu Fernandez. 'Sortze berri bat. Indarkeria obstetrikorik gabea'. Elkar. Liburu aurkezpena.

13:30 Harkaitz Cano. 'Ulu egiteko bolondres bila'. Susa. Errezitala.

14:00 Goiatz Labandibar. 'Bekatua'. Erein.

16:00 Gotzon Barandiaran. 'Hildako haurra'. Maddi Goikoetxea. 'Ura jaten'. Ganbila antzerki bilduma. Susa. Liburu aurkezpena.

16:30 Nerea Loiola. 'Azken denbora'. Erein. Liburu aurkezpena.

17:00 Annie Ernaux. 'Emakume izoztua'. Itzultzailea: Gema Lopez Las Heras. Elkar. Liburu aurkezpena.

17:30 Xabier Mendiguren. 'Oso latza izan da'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 Patxi Zubizarreta. 'Loak ezkututzen duena'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:30 Iratxe Ormatza. 'Printzak begietan'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:00 Josebe Blanco. 'Hausnarrean. Ardiek egiten naute artzain'. Argia. Liburu aurkezpena.

19:30 Iñigo Martinez. 'Pantailen garaipena. Begiradaren totalitarismoaren kontra'. Elkar. Liburu aurkezpena

Abenduak 8, barikua

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Lotura. 'Erantzunaren zain'.

12:10 Eider. 'Loratzen'.

13:20 Eire. 'Zauriren bat bistan'.

14:30 Miren eta Roberto Etxebarria. 'Kolpatuz'.

15:40 Nakar. 'Lore eta laban'.

16:50 Ithaka. 'Biluzten'.

18:00 Sara Zozaya. 'Nara'.

19:10 Txopet. 'Nahiz eta jausi'.

20:20 Silitia. 'Hiru ate'.

21:30 TOC. 'Eskerrik asko'.

Musika Eskola (Solosalduak)

11:00 Martin Etxebarria. 'Kangaroo'. Elkar. Liburu aurkezpena.

11:30 Ane Labaka. 'Barraskilok baino bat gehiago'. Erein. Liburu aurkezpena.

12:00 Irati Goikoetxea eta Irrimarra. 'Nor'. 1545 argitaletxea. Liburu aurkezpena.

12:30 Yurre Ugarte eta Julen Ribas. 'Iris XXII'. Txalaparta. Liburu aurkezpena.

13:00 Mari Luz Esteban. 'Haragizko erreformak'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

1955an sortua
GALLASTEGI
harategiak



ZALDIBAR
Zalduasolo, 8. ☎ 946 827 038

DURANGO
Antso Estegiz. Zumardia, 1
☎ 946 812 247
www.gallastegiharategiak.eus

TABIRA
COLOR
www.tabiracolor.com



PINTURA DENDA

Leku aldatzea! Orain Eroskiren aurrealdean gaude.

www.tabiracolor.com




AMAYA
AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozketaren errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofiziko telefonoa: 682296161
tallerreko telefonoa: 64672022
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

AHOTSENEA

13:30 Juan Kruz Igerabide. 'Ura saltoka eta natura eta kultura jolasean'. Alberdania. Liburu aurkezpena.

14:00 Mugan. 'Aurrera ez den alde batera'.

16:00 Uxue Alberdi eta Begoña Durruty. 'Belarriko kilkerra'. Elkar. Liburu aurkezpena.

16:30 Lide Hernando. 'Izotz ura'. Susa. Liburu aurkezpena.

17:00 Garazi Albizua. 'Gaizkileen galtzada. Leitzako dorreak'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

17:30 Karmele Jaio. 'Maitasun kapitala'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 Hannah Arendt. 'Eichmann Jerusalem, gaizkiaren hutsaltasunaren gaineko txosten bat'. Itzultzailea: Koro Navarro. katakrak. Liburu aurkezpena.

18:30 Jon Urzelai. 'Su festak'. Susa. Liburu aurkezpena. Liburu aurkezpena.

19:00 Jon Artano. 'Juana'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:30 Xabier eta Martin Etxeberria eta Alex Sanvy. 'Artxipelagoa'. Elkar. Liburu aurkezpena.

Abenduak 9, zapatua

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Ke Lepo. 'Izpi'.

12:10 TRB. 'Turbo'.

13:20 Amorante. 'Harri herri har'.

14:30 Leihotikan. 'Etorkizuna ginenean'.

15:40 Haize-arrosa. 'Ez dogu zor ezer'.

16:50 Otoi. 'Zuzen'.

18:00 Etxepe. 'Etxepe kids'.

19:10 Rukula. 'Traganarru'.

20:20 Feline. 'Jan zu'.

21:30 Ibil Bedi. 'Goldea'.

Musika Eskola (Solosalaiak)

11:00 Friedrich Engels. 'Etxebizitzaren auzia'. Itzultzailea: Ane Garcia. Katakrak. Liburu aurkezpena.

11:30 Pako Aristi. 'Irunberri, 1990: Arroilaren negarra'. Erein. Liburu aurkezpena.

12:00 Uxue Alberdi eta Susanna Martin. 'Surflaria'. Ikastolen Elkarte. Liburu aurkezpena.

12:30 Miriam Luki. 'Argialdiak'. Susa. Liburu aurkezpena.

13:00 Eneko Aizpurua. 'Gaueko azken expressoa'. Alberdania. Liburu aurkezpena.

13:30 Luigi Anselmi. 'Larrazkeneko argi-ilunetan'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

14:00 Josu Penades. 'Egarria'. Alberdania. Liburu aurkezpena.

16:00 Jon Alonso. 'Carvalho Euskadin'. Susa. Liburu aurkezpena.

16:30 Miren Agur Meabe. 'Itzulerak'. Elkar. Liburu aurkezpena.

17:00 Fertxu Izquierdo. '...eta gauek, euria'. Pamiela. Liburu aurkezpena.

17:30 Julen Apella. 'Postal bat desertuan'. Balea Zuria. Liburu aurkezpena.

18:00 Jon Maia. 'Kantu berri bat gara' (disko-liburua). Elkar. Aurkezpena.

18:30 Olatz Mitxelena. 'Arrain hezur bat ezarrarian'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:00 Jasone Osoro. 'Arrakasta'. Elkar. Liburu aurkezpena.

19:30 Aintzane Usandizaga. 'Zomorrotu'. Elkar. Liburu aurkezpena.

Abenduak 10, domeka

Plateruena (Zuzenekoak)

11:00 Intza. 'Aheri'.

12:10 Mamu. 'Mapa eta lurraldea'.

13:20 Karma. 'Odolean dena'.

14:30 Haira. 'Laupabortz aire ttipi'.

15:40 Muzak. 'Irabaziak eta galerak'.

16:50 Kuma No Motor. 'Baiona zikina'.

18:00 Modus Operandi. 'Atzo eta gaur'.

19:10 Kamaronte. 'Kamaronte'.

20:20 Muare. 'Muare'.

21:30 Jabi Patxon eta Kofradia Rock. 'Iraganaren deialdiak'.

Musika Eskola (Solosalaiak)

11:00 Kristina Berasain. 'Sahara, herri bat erresistentzian'. Berria. Liburu aurkezpena.

11:30 Iban Garro. 'Larrosa bat Groenlandian'. Denonoartean. Liburu aurkezpena.

12:00 Xan Idiart. 'Nostalgia ez da salgai'. Maiatz. Liburu aurkezpena.

12:30 Simon Weil. 'Askatasunaren erroak'. Itzultzailea: Beñat Castorene. Maiatz. Liburu aurkezpena.

13:00 Ander Lipus. 'Antzerkiaren labirintoan. I: Bitakora koaderno / Antzerkiaren labirintoan II: Artedrama baten bila'. Susa. Aurkezpena.

13:30 Galder Izagirre. 'Esc. Forbidden Colours'. Disko aurkezpena.

14:00 Joe Sacco. 'Palestina'. Itzultzailea: Julen Gabiria. Astiberri. Liburu aurkezpena.

16:00 Emma Arestegi eta Maialen Arestegi. 'Xan'. Elkar. Liburu aurkezpena.

16:30 Elise Dilet, Antton Hariñordoki eta Ainize Butron. 'Haize leizean'. Elkar. Liburu aurkezpena.

17:00 'Udazkeneko Munduko Poesia Kaierak'. Philip Larkin. Itzultzailea: Juanjo Olasagarre. 'Pier Paolo Pasolini'. Itzultzailea: Irene Hurtado de Saratxo. Susa. Aurkezpena.

Volkswagen Audi SEAT

ALLUITZ MOTOR

ZURE KONTZESIONARIOA
VOLKSWAGEN, AUDI eta SEAT

ZERBITZU OFIZIALA · SALMENTA ETA SALDU OSTEKO ZERBITZUA · MEKANIKA-LANTEGIA



ALLUITZ MOTOR ALLUITZ KALEA, DURANGO Tel.: 946 202 004

TEKNOLOGIA GOZAGARRI



tabiraberezi
Telekomunikazioak
Informatika

Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango
94 681 22 04
info@tabiraberezi.com
www.tabiraberezi.com



anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Tu-tum Platz! bakarrizketarako bi sarrera. Abenduaren 15ean, Berrizko Kultur Etxean.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Bertso saio solidarioa Berrizen: Itziar Izurieta
Futbolistok: Maite Euba

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



“Izugarri disfrutatu dugu Gorka Urbizurekin lan egiten, eta oso pozik gaude emaitzarekin”

Leihotikan talde beteranoak *Etorkizuna ginenean* diskoa kaleratu du. Lan berriak berritasun handi bat du: Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuk egin ditu ekoizle lanak



LEIHOTIKAN • EKAITZ HERRERA

Leihotikan talde iruindarrak estudioko zazpigarren lana plazaratuko du Durangoko Azokan: *Etorkizuna ginenean*. Aurten stand propioa izango dute. Patxi Mercero gitarristak erantzun die galderei.

Zazpigarren lana bada ere, berritasuna da nagusi disko berrian. Zela-koa izan da sortze prozesua?

Egia esan, oso pozik gaude emaitzarekin. Diskoa egiteko prozesuan ere izugarri disfrutatu dugu. Guretzat erronka handia izan da ekoizle berri batekin lan egitea, eta grabazioa guretzat berria den estudio batean egitea. **Izan ere, disko berritasun nagusia ekoizpen prozesua izan da. Izen handi bat aipatu behar da hor: Gorka Urbizu. Zelakoa izan da Gorka Urbizurekin egindako elkarlana?** Izugarritzko esperientzia izan da. Guk diskoa ekoizteko proposamena egin genion. Oso lanpetuta zebilen eta ez genuen uste baiezta emango zigunik. Baina Gorkarekin daukagun hartu-ema-na aspaldikoa da. Beti izan da Leihotikan zalea, eta egundoko ilusioarekin hartu zuen gure lana ekoizteko proposamena. Bi hilabete egin ditugu lokalean berarekin abestiei itxura ematen. Izugarri disfrutatu eta ikasi dugu. Gorkak oso ongi ezagutzen du gure musika eta oso garbi zuen zer nahi zuen.

Diskoaren azalak kontrastea egiten du azken bietako zuri-beltzagaz. Kanta kopurua txikiagoa da, eta letretan argia eta itxaropena na-

baritzen dira. Taldeak bizi duen testuinguru pertsonalaren ispilu da hori?

Baliteke, baina, azken finean, azala prozesu berri honen ispilu da. Ekoizle berria, estudio berria eta teknikari berria. Gorka Urbizu, Gaztain estudioak eta Eñaut Gaztañaga. Disenuaz pertsona berri bat arduratu da: Ander Xabier Tejada, Adrenalized taldekoa. Berri Txarrak azken lanen diseinuak ere berak egin ditu. Anderrek berak eraman gaitu estilo horretara. Oso pozik gaude.

Iruñeko Gor Diskak zigiluak agur esan du. Haregaz kaleratu dituzue zuen lan guztiak. Oraingoan, baina, zigilu berria sortu duzue: Txorimalo Records.

Disko hau Gorrekin ateratzea genuen buruan. Diskoetxearen azken argitalpena izatea gura genuen, baina ez da posible izan. Ondorioz, diskoetxe propio bat eratzea erabaki dugu. Egia esan, ez dugu diskoetxe modura hartzen, baizik eta lan bat editatzeko beharrezkoa den tresna modura. Azokan postua izango dugu, Leihotikan izenpean. Bertan gure material fisiko guztia izango dugu.

Musika egiten hasi zinetetik hona, 30 urte baino gehiago igaro dira. Gutxi dira, zuen moduan, hasieratik hona taldekideen artean aldaketarik jasan ez duten taldeak. Azkenean familia bat bihurtu gara. Beti zaindu eta errespetatu ditugu taldekideen gorabehera pertsonalak. Beti aritu gara denon onurarako jotzen. Beharba-

da horregatik ez genuen hainbeste disko edo kontzertu emango. Gure erritmoa izan dugu.

Zuen abestirik esanguratsuenetariko batek 'Punk rock talde soil bat' zaretela aldarrikatzen du. Euskal eszenan 'klasikoak' edo 'mitikoak' bihurtu zaretzen sentipenik baduzue?

Klasikoak? Mitikoak? Ez! Basajaun eta Olentzero bezala pertsonaia mitologiko bihurtu garela esango nuke (barrez). Argi duguna da zahartzen ari garela, eta, hasierako ilusioarekin bagabiltza ere, gazteak indartsu datoz eta euskarazko musika aniztasuna izugarria da estilo guztietan. Osasuntsua da.

Zuen zuzenekoak ezagutzen dituenak beti topatuko du umore ona, energia, lagunartea. Bira berrian zelakoak izango dira zuzenekoak?

Oraingoan, Euskal Herritik zabaldu nahi ditugu aurkezpen kontzertuak. Madrilerara eta Bartzelonara ere joan nahi dugu. Orain, baina, zuzenekoak lantzen ibiliko gara. Hasieran, kontzertuak jo eta parranda egiten genuen emanaldia bukatuta. Gaur egun, oholtza gainean kontzertua jotzea bihurtu da parranda. Lehenengo diskoak harrera izugarria izan zuen. Euskadi Gaztea eta Management handiak gure atzetik zebiltzan, baina guk ez genituen gure abestiak zuzenean ongi jotzen. Orain dela urte batzuk buelta eman genion honi, eta geroz eta gusturago sentitzen gara kontzertu berri bakoitzaren ondoren.



Ithaka. IKER GOZATEGI

“Diskoan dena eman dugu, biluztu egin gara jendaurrean”

Ithakak azaroan kaleraturiko debuteko diskoa aurkeztuko du abenduaren 8an, Ahotsenean

MUSIKA • AITZIBER BASAURI

Orioko eta Zarautzeko lau gaztek osatzen dute Ithaka: Leire Olariagak (ahotsa eta teklatura), Arantza Igartuak (gitarra eta ahotsak), Josune Freirek (bateria, saxofoia eta ahotsak) eta Eneko Eizagirrek (baxua). 2021ean sorturiko taldearen *Biluzten* lehenengo diskoa Bilboko ETEN Espazio Sonoroan grabatu dute, Urtzi Izagaz. Eizagirrek erantzun die ANBOTOn galderari.

Zelan definituko zenuke diskoa?

Ia jakin gabe hasi ginen taldeagaz. Lau lagun elkartzen hasi ginen, pixkanaka entseatzeko, abestiak sortzen, kontzertuak ematen... Eta heldu zen momentu bat non geure burua zerbait solidoa bilatzen ikusten genuela; sentitzen genuena husteko bide bat bilatzen genuen. Horixe litzateke *Biluzten*. 18-19 urteko gazteen bizipenak, geureak, islatzen dira Leirek sorturiko letretan.

Musikalki ere bai, beste denok ere hustu egin garelako. Sentsazio hori dut. Dena eman dugu, biluztu egin gara jendaurrean.

Abestien letrek gazteen bizipenak islatzen dituzte, beraz.

Diskoan zehar eklektikoak izatea gustatzen zaigu, esanahiak iradokitzea, eta, jendeak abestiak entzunda, norberak gura duena interpretatzea. Dena den, gazte bezala heldu izate horretarako bitzako

trantsizio etapa kontaktzen du Leirek letretan. Baina ez dut *spoiler*-ik egin nahi. Nahiago dugu bakoitzak nahi duena interpretatzea letrekin, horretarako daude eginda.

Eta berri bati ekin diozuela esango zenukete? Orain arteko abestiekin desberdintasun handiak daude.

Bai. Soinuari eta musikari dagokionez, eta konposatzerako orduan eramandako ideari dagokionez ere bai. Esan bezala, jakin gabe hasi ginen, korronteak eramanda bezala, kantzak sortuz. Baina *Biluzten* diskoa konposatzerakoan argi genuen egitura bat, landutako ideia, eta estetika bat. Batez ere, horretan dago aldatuta, gure jarreraren. Orain arteko abestiak alaiagoak izan dira, neurri batean infantilak ere bai. Oraingo honetan guztiz aldatu da gure

zela onena. Oso pozik gaude azken emaitzarekin eta sormen prozesu osoarekin.

Durangoko Azokaren aterpean joko duzue. Kontzertu berezia izango da?

Garbi dugu plaza berezia eta oso exijentea izango dela. Denak egongo dira Durangon. Guk miresten ditugun talde asko Azokan egongo dira, eta badakigu kontzertu exijentea izango dela, baina, aldi berean, horrek motibatu egiten gaitu. **Iaz Gaztea Maketa Lehiaketako publikoaren saria irabazi zenuten, eta hainbat kontzertu eman duzue.**

Ez gaude kexatzeko, ez! Hauxe da bilatzen genuena: gure musika egitea eta, batez ere, zuzenekoetan jotzea, jendaurrean. Mugitzea, bidaiatzea... eta eskatutakoa iritsi zaigu, apur bat bilatu gabe. Esango nuke 2023an 25 kontzertutik gora eman ditugula, eta 19 urteko lau gazterentzat hori itzela da. Guretzat katapultatza erraldoi bat izan zen, bai ikusgarritasunaren aldetik, bai alde ekonomikoaren aldetik.

Zelan sortu zen taldea?

Nik beste talde batean jotzen nuen; eta Josunek, adibidez, ez zekien batera jotzen. Baina baguen ideia bat amankomunean, baguen gogoa elkartu eta zerbait egiteko. Eta halaxe hasi ginen. Hiru gelakideak ginen, ekonomia klasean, eta, gero, gurekin gitarra jotzeko esan genion Arantzari. Orioko Udalak lokal bat utzi zigun eta hori inflexio puntu bat izan zela esango nuke: baguen non elkartu, non sortu... Pixka bat nahi gabe sortu zen.

Zeintzuk dira zuen influentziak?

Belako da gure influentziarik handiena, euren ere badakite hori. Dena den, disko honek badu munduko beste hainbat talderen post-punk eta post-rock kutxua. Besteak beste, Joy Division asko gustatzen zaigu, The News, Royal Blood... Baina bakoitzak bere gustuak ditu, horrek aberastu egiten gaitu.

Zeintzuk dira zuen hurrengo saioak?

VillaSoundBilbao jaialdia irabazi ondoren, lau kontzertu ditugu Espainian. Karrantako 2. urtean eta, bat-batean, Toledon, Zaragozan eta Kordoban joko dugu, pentsa! Donostiako DOKAn eta Gernikako Astran ere joko dugu.

“Bagenuen gogoa gelditu, konposatu eta ideiak ondo antolatzeko. Eta urte osoan zehar jardun dugu horretan”
ENEKO EIZAGIRRE

estiloa, eta gogotsu gaude ikusteko jendeak nola hartzen duen gure fazeta berri hau. Oso harro gaude egin dugun lanarekin.

Zelako prozesua izan da?

Esan bezala, baguen gogoa gelditu, konposatu eta ideiak ondo antolatzeko. Eta urte osoan zehar jardun dugu horretan. Arantza gitarrista Madrilen bizi da eta berekin geratzeko zailago geneukan. Baina denok lokalean egonda, laurok sortutako lana izatea nahi genuen. Beraz, Gabonetan, aste-buruetan eta udan aritu gara ideia guztiei forma ematen eta diskoa borobiltzen. Letrak eta melodiak bukaerarako utzi genituen, lanari forma berezia eman nahi geniolako, diskoak bere osotasunean zentzu bat izan zezan. Orain arteko abestietan estilo desberdinak nabari ziren, eta ez genuen hori nahi. Zerbait solidoagoa bilatzen genuen, zentzuduna. Bada, pentsatu genuen laurok batera konposatzea

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia





**Martxel Zubia
Arrinda**

Saguganbarako arduraduna

ABADIÑO | 1995

“Nobedade legez, ikuskituzun batzuk kanpoaldean izango dira aurten”

Umeek ere euren espazio propioa izaten dute Durangoko Azokan: Berbaro elkarteak antolatzen duen Saguganbara

SAGUGANBARA • JONE GUENETXEA

Hileetako prestaketa lanen ondoren, Berbaro elkarteak dena prest dauka Saguganbarara doazen umeek irakurzaletasunagaz gozatzeko. Martxel Zubia da espazio horren arduraduna.

Oraindino ere despistaturen bat bada, zer da Saguganbara?

Euskal kulturaren transmisioan eragin gura duen ume zein familien gozamenarako gunea bat. Urtean egon diren lan berriak ezagutarazteko espazioa. Liburu aurkezpenak, ikuskizunak, kon-

tzertuak, tailerrak eta bestelakoak izaten ditugu, 5 egunez, 11:00etatik 20:00etara.

Zein nobedadezag dator aurten?

Nobedade legez, ikuskizun batzuk kanpoaldean izango dira aurten. Arrakastatsu aurreikusten diren ikuskizunak kanpoan egiteko aukera sortu zen eta ez genuen zantzarik izan. Horrela, datozen denek izango dute ikuskizun horiek ikusteko eta gozatzeko aukera.

Garrantzi handia ematen diozue dekorazioari. Aurten zelan apainduko duzue?

Iaz aldaketa esanguratsuak egin genituen Saguganbaran, eta apurka-apurka iazkoa osatzen gabiltza. Aurtengoa iazkoaren antzekoa izango da, baina gunea ekipatuago egongo da.

Zein material izango duzue?

Gunea liburuz beterik izaten dugu. Aurtengo publikazio berriak eta iazko gomendagarriak ipintzen ditugu ikusteko, irakurtzeko, interpretatzeko... Liburu hauekin sortzen dugun beste gauzatariko bat, eta Saguganbaran ikusgai egoten dena, *Ume eta gazteentzako irakur-gida* izaten da. Aipaturiko liburuaren gida bat izaten da hau. Gida horretan, liburuaren adinka sailkatuta egoten dira, argitaletxeen adin gomendioen arabera. Liburu bakoitza zein argitaletxetako den, idazlea edo egileak nortzuk diren eta prezioaren informazioa aurkitu ditzakegu.

Ikasle Goizerako zer aurreikusi duzue?

Filosofia tailerra izango dugu, Jakinmin elkarteko eskutik. Jakinmin elkarteak urteak daramatza haurrei filosofia tailerrak eskaintzen, eta oso interesgarria irudit

zitzagun elkarregaz tailer hau eskaintzea Ikasle Goizean. Tailer honetan, pentsamendu filosofikora hurbilketa ludiko bat egitea proposatzen da. Hausnartzea, baliogarria bezain dibertigarria delako.

Zeintzuk ekitaldi nabarmenduko zenituzke?

Guztira, 23 bat ikuskizun egongo dira Saguganbaran, eta batzuk nabarmentzea oso gaxa bada ere, hauetxek aipatuko nituzke: Elaia Torres Durangarraren *Sustraidun umea*, Patricia Urrutia Karrika antzerki taldeko zuzendariaren *Batetik bestera* kontzertua, Pello Añorgaren *Pantxo zezena*, Potx eta Lotxen pailazoen *Zapata magikoa!*, Ene Kantaken ikuskizuna eta Ameli ipuin kontalariaren *Ameli eta Xirrikituak jostunak* kontaketa.

Abenduaren 8an Martxanterak liburu aurkeztuko dute. Zertan datza?

Alaia eta bere gurasoak dira liburuaren protagonistak. Amaren urtebetetzeaz ahaztuta, esku hutsik harrapatu du neskatua, amarentzat oparirik barik. Baina Boni martxanteraren laguntza izango du. Durangon egon zen azken martxanterak irakatsiko dio pazientzia eta pertseberantzia ezinbestekoak direla helburuak betetze aldera. Eta ez dugu askoz gehiago kontatutako, badaezpada...

Irakurzaletasuna bultzatzeko, Berbarok Haur Literatur Aretoa antolatzen du Azokatik kanpora. Zenbat ikaslerengana heltzen zarete?

Durangaldeko ume pilo batengana heltzen gara Haur Literatur Aretoagaz; 4.300 bat umeengana, apur

bat zehatzagoak izateko. Guztira, Zornotzako, Durangoko, Elorrioko, Zaldibarko eta Berrizko hamabost ikastetxek parte hartzen dute gure proiektu honetan. Urtero gai bat aukeratzeko dugu, interesgarria izango den gai bat. Aurten, adibidez, Gaba Baltzaren bueltan erakusketa girotuak sortu ditugu, eta baita ipuin antzetzuek, ipuin kontaketak, antzerkiak, sormen tailerrak eta liburu erraldoiak ere. Horrez gainera, urtero irakur-gidak ateratzen ditugu ume eta gazteentzat, urteko argitalpen berriekin eta iazko gomendagarriekin.

Iaz zure lehenengo Saguganbara izan zen. Zelako esperientzia izan zen?

Itzela. Asko gozatu nuen iazko Durangoko Azoka. Guretzat oso egun intentsuak izaten badira ere, disfrutatuta egiten dugu gure lana egiten. Aste osoan egoten gara Durangoko Azokako fantasia-mundu horretan murgilduta, ia ia hortik irten ere egin barik, eta horrek Azoka berezi egiten duela esango nuke. Urte osoan zehar lantalde handia batzen gara hau guzti hau antolatzeko, eta Azoka egunetan dena martxan dagoela ikustek poztu egiten zaitu.

Eta aurten?

Aurten, antzera. Desiratzen nago 58. edizio hau heltzeko. Esan dudana moduan, egun horiek bereziak izaten dira. Ia dena prest dago, azken ukituak baino ez dira falta, eta dagoeneko hasita dago atzerako kontaketa. Konturatu orduko, hementxo dugu aurtengo edizioa ere.



Iazko Saguganbarako ekitaldi bateko argazkia.

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000

www.nacex.es

Mezularitza-enpresa

Paketeak prezio eskuragarrietan bidaltzen ditugu.
Kontsultatu konpromisorik gabe.

San Roke, 10-12 Etxabea DURANGO
Tel.: 946 200 162 | E-maila: 4810.operativa@nacex.es

lizentziak, proiektuak eta obraren zuzendaritza

jazz solutions

barne diseinua
lan guneak
kudeaketa bisuala

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

94 621 59 64
www.jazzsolutions.es

R.E.A.:15/48/0014485
K.Z.: 0544-BI

SAGUGANBARA

Abenduak 6, eguaztena

11:00 'Hizki Pizti. Ikas dezagun irakurtzen eta idazten'. Argia. Tailerra.

12:30 'Ortuko bizitza bilduma'. Erein. Liburu aurkezpena.

13:30 'Euskelelea'. Erlea. Ikuskizuna.

15:30 'Izar saltzailea'. Ikas. Liburu aurkezpena.

17:00 'Iratxoak eta basoko sorginkeria eta Hur ikasten'. Mezulari. Liburu aurkezpena.

18:00 'Iratxoek kantu sekretuak'. Ikuskizuna.

Abenduak 7, eguena

10:30 'Haur filosofia'. Tailerra.

16:30 'Zapata magikoa!' Potx eta Lotx pailazoak. Ikuskizuna.

18:00 Adi Natura bilduma. Sua. Liburu aurkezpena eta kontaketa.

Abenduak 8, barikua

11:00 'Martxanterak'. Bizkaiko Foru Aldundia. Liburu aurkezpena.

12:00 'Pantxo Zezena'. Denonartean. Liburu aurkezpena.

13:00 'Ameli eta Xirrikituen jostunek'. Ipuin kontaketa.

16:00 'Mari Gonagorri eta hamazazpi berri'. Denonartean. Liburu aurkezpena.

17:00 'Mihi-puntaren puntan'. Elkar. Liburu aurkezpena.

18:00 'Bada zerbait'. Agalir. Liburu aurkezpena.

Abenduak 9, zapatua

11:00 'Sustraidun umea'. Elaia Torres. Liburu aurkezpena.

12:00 'Basati'. 1545 argitaletxea. Ipuin kontalaria.

13:00 'Batetik bestera' kontzertua. Benetan be. Ikuskizuna.

17:00 'Inauteri herrikoiak'. Txalaparta. Ipuin kontalaria.

Abenduak 10, domeka

11:00 'Liburu baby kluba'. Mestiza elkarte. Tailerra.

12:30 'Ene Kantak' Dantzan. Ikuskizuna.

16:30 Ilustrazio tailerra. Usue Egia.

DURANGO +

Abenduak 6, eguaztena

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

13:00 'Hegats 59. Beste modu bat'. Euskal Idazleen Elkartea. Aurkezpena.

17:00 'Euskal Irudigileak'. Ximon Agirregaz solasaldia.

20:00 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 7, zapatua

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

11:00 'Kaleido-book'. Bixenta Mogel herri biblioteka. Tailerra.

11:00 'Agustin Ibarrolari buruzko tailerra'. Museoa. Tailerra.

18:00 'Nolako da amatasun feminista?' Ikus-entzunezko podcasta. Hamaika Tebista. Aurkezpena.

19:00 'Emakume zinemagileak, desgaitasuna eta zaintzak'. Meridiano moreak. Topaketen laburpena. Aurkezpena.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 8, barikua

13:00 'Bermuta eta eztabaida'. Etorkizuna irudikatzeko literatura. Consonni. Mahai-ingurua.

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

19:00 'Bertsoglosasaio. Bertsolaris eta glosadores'. Pol-len edicions. Ekitaldia.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 9, zapatua

12:00 'Geuretik sortuak: interakziotik fikziora. Geure herrien eta sortzaileen arteko interakziotik sortutako kontakizunak'. Udalbiltza. Aurkezpena.

10:00-14:30/16:00-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

19:30 'Txistua XXI. mendean'. Arrupe aretoa (Jesuitak ikastetxea). Kontzertua.

19:30 'Zestaren zirrara'. Ezkurdi Jai Alai frontoia. Liburu aurkezpena eta zesta-punta partiduak.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Abenduak 10, domeka

10:00-14:30/16:30-18:30 'Basques in Australia'. Turismo Bulegoa. Erakusketa.

11:00-14:00/17:00-20:00 'Ibarrola. Papera ardatz'. Durangoko Museoa. Erakusketa.

20:30 'Bidasoa 2018-2023'. Zugaza Zinema. Film emanaldia.

Anboto
TABERNA JATETXEA



Goienkale kalea, 14
Durango - Tel.: 946 811 020

R.P.S. 214/06
A. Urreta podologoia

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

DESGUACES PILASTRA

- CAT zk. EU2/097/04
- Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
- Ordezko pieza erabilien salmenta
- Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079

Osagarrien salmenta: 946 201 787

e-mail: desguacespilastra@gmail.com

Fauste auzoa, 18 - 48215 IURRETA (Zugastietara bidean)



Janire Etxabe, Amaia Lejarreta eta Jon Mendizabal.

“Fantasia itzela da 'Erro' eta 'MADA' egia bihurtu eta Durangoko Azokan parte hartzea”

Inaugurazio ekitaldia abenduaren 6an izango da, 12:00etan. Erro abenduaren 7an aurkeztuko dute, Irudienan, 19:00etan

ARTE PLASTIKOAK • MAIALEN ZUAZUBISKAR Amaia Lejarreta durangarrak bere lehenengo ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Durangoko Azokan: **Erro**. Abenduaren 7an izango da. Horren bezperan, **Erro** film laburretik jaio den **MADA** zuzeneko performancea aurkeztuko du Azokako inaugurazio ekitaldian.

Aurtengo Azokako inaugurazio ekitaldian parte hartuko duzu. Zer rol jokatuko duzu bertan?

Azken urteetan, margoa eta *body paint*-a uztartzen ibili naiz. Aurtengo udaberrian, proposamen bat jaso nuen. Galdetu zidaten ea euskal emakume sortzaile izanda zelan ikusten nuen euskaldun

izatea mundu honetan, eta ea nire ustez euskaldunok etorkizunik bat ote dugun. Hori azaleratzeko gonbita egin zidaten, eta onartu egin nuen. Txikitatik gauzak bideoklip eran ikusi izan ditut nire imajinarioan, eta aukera ikusi nuen nire koloreak eta koadroak mugimenduan ikusteko. Proposamen horretatik sortu zen *Erro*.

Erron hainbat gai jorratzen dut. Euretarike bat emakumea eta jainkosa dira, euren arteko fusioa... Niretzat 'emakumea eta jainkosa' kontzeptua nabarmentzea ezinbestekoa da. *Erron* hainbat gai jorratzen duenez, 'emakumea eta jainkosa' kontzeptuagaz beste zerbait egin nezakeela ikusi nuen, eta

mance horretan, nire pertsonaia emakume lurtiarra izango da, eta bera jainkosa horren sinbolismoa. Eta hor zuzeneko margolan bat egingo dugu, bai gorputzean eta baita euskarri batean ere. Dena, dantzaren bitartez.

Performancea momentuan sortzen den artea da nire ikuspuntutik. Bizitza eta artea batera doaz, eta performanceak, nahiz eta efimeroa izan, gure memorian bizirik iraute du. Esperientzia edo hor sortzen den 'zer' hori ez da sekula hiltzen. Hau ez da soilik arteagaz gertatzen, pertsonekin ere berdin pasatzen da.

MADA inaugurazio ekitaldian aurkeztuko duzue, baina baduzue asmorik beste inon egiteko?

MADA Errotik jaio da, *Erron*en alabatut dut nik, eta Azokako inaugurazio ekitaldian egingo duguna *working progress* bat da. Hau da, momentuan sortu den zerbait. Baina gure asmoa bada *MADA* proiektu lez aurkeztea, horri forma gehiago eman eta kaleratzea. Azken batean, niri performanceak eta zuzeneko lanak egitea gustatzen zait gehien.

Abenduaren 7an, Erro film laburra estrainatuko duzue Irudienan. Zela-koa izan da Erroren sortze prozesua?

Berezia eta polita. Udaberrian jaso nuen eskaintza eta irailera arte lanean ibili gara. Era organiko batean lan egin dugu, bizitzagaz

batera. Eskaintza jaso nuenetik, banekien lan multidiziplinar bat egingo nuela. Eta argi nuen zein lantalde izan gura nuen. Norbere buruagaz lan egitea polita da, baina baita ere beste diziplina batzuetako jendeagaz lan egitea. Hori horrela, *Erron* *bodypainta* eta Janire Etxaberen dantza bertikala uztartu ditugu. Jon Mendizabalek bere kameragaz grabatu eta editatu du dena, eta Ines Osinagak ahotsa ipini dio.

Oso gustura geratu naiz emaitzagaz, eta, gainera, espresatzeko beste era bat topatu dut. Nik ez dut inoiz lanik egin ikus-entzunezko arloan. Salto hori ematea, lantalde batez lan egitea, eta zer sortu den ikustea oso berezia izan da.

Durangar legez, zer suposatzen du zuzentzat Azokako inaugurazio ekitaldian parte hartzeak?

Niretzat fantasia itzela da *Erro* eta *MADA* egia bihurtu eta Durangoko Azokan parte hartzea. Ibilbide artistikoan, azken hiru urteetan salto bat eman dut. 2020a momentu klabea izan zen niretzat, naizena erakusteko, zeintzuk kolore ditudan erakusteko... Eta hor hasi nintzen ibilbide sakonagoa egiten, kobazulotik irten eta publikotasunean murgiltzen. Beraz, niretzat ohore bat da orain Durangoko Azokan *MADA* eta *Erro* aurkeztu ahal izatea. Oso eskertuta nago.



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

RPS.: 57/16



bed's

Benetako atsedena hartu nahi duzu?

Alluitz, 1 Durango
944 005 980 • www.beds.es
durango@tiendasbeds.es



Izaroren ikus-entzunezko lanaren irudi bat.

Izarok diskoaren eta zuzenekoaren arteko zubia den pieza aurkeztuko du Irudienean

Abenduaren 8an izango da film emanaldia, Irudienean, 13:00etan; mallabitarrak *Cerodenero* diskoa ere aurkeztuko du

IKUS-ENTZUNEZKOAK • A. M.

Cerodenero lana disko soil bat baino gehiago da. Izaro artista mallabitarrak orain artean atera duen lanik anbiziotsuena izango da, eta hori igarri egiten da, sortu duen ikusmiragaitik. Abenduaren 8an kaleratuko du diskoa eta Durango Azokan bertan erosi ahal izango da. Baina diskoa ez da Izarok egunotan eskainiko duen nobedade bakarra. Abenduaren 8an, 30 minutuko ikus-entzunezko obra aurkeztuko du Irudienean, 13:00etan; *Cerodenero*-ren aurkezpen multimedia izango da. Bertan, mallabitarrak bideoklip tradizionala, filmazio-prozesuaren errealitatea, performancea eta zuzenekoak uztartzen ditu. Lan berriko abestiak eta honen iruditegia batzen ditu.

Izaro Andres "indarberrituta" bueltatu da, "aro berri bati" hasiera emateko prest. "Aurreko bira oso luzea izan zen eta beha-

rezkoa nuen atsedean bat hartuta nator", azaldu du abeslari mallabitarrak. "Engranaje osoa zeroan ipini eta hamarkada berri bati aurre egitea izan da. Aurten 30 urte egingo ditut eta hau Izaro 3.0 bat ere bada neurri batean, terapiara joan dena eta bere traumatxoak bere lekuan ipintzen ahalegintzen dabilena", nabarmendu du. Diskoa kontzeptuala da eta "mendi bat igotzeagaz" alderatu du. Intentsioa eta emozioz bete, pop, folk, eta doinu elektronikoak uztartzen ditu. "Niretzat norberak bere mendia igotzearen modukoa da. Igo mendi horretara, yetia ikusi, itzuli eta kontatu ikusi duzuna; abentura moduko bat. Azken bi-hiru urte terapeutiko hauetako bidaiatik bueltan, kaiera bat egin nuen, famatu egiten hasi eta orain arteko esperientziak", esan du.

Aurretik, Donostian bizi den abeslari mallabitarrak *Om* (2016), *Eason* (2018) eta *Limonas en invierno*

(2020) lan arrakastatsuak kaleratu ditu. Arrakasta horren erakusle, besteak beste, Donostiako belodromoan iaz 6.000 lagun batu izana dago. "Une horretan, gainera, kontzertu hori sendaketa bat izan zen. Belodromora joan ziren 6.000 lagun horiengan baino gehiago, arreta albo batera utzi ninduenengan jartzen nuen; hor arakutzen nebilen. Lana hartu dut ni entzuten nautenengan maitasuna eta denbora jartzeko. Horrela, belodromokoa mugarriz izan da nire osasun mentalerako. Nori abesten diodan konturatzeko balio izan zidan", argitu du abeslariak. Bestalde, mallabitarra pozik dago Durango Azokara lan berriagaz datorrelako. "Itzela da. Diziplina desberdinetako zure artistaririk gogokoenekin egin ahal izatea ahalbidetzen du, bost egunez, leku bakarrean. Oso ondo dago, benetan berba egin dezakezulako. Komunitatea sortzeko ere oso ba-

liagarria da, eta beste modu bat da artistak ezagutzeko. Esango nuke hartu-eman dezente dugula gure artean ere, baina ia ez dugu koinziditzen, biran egoten garelako. Durango ordu asko partekatzen dugu, eta hori ondo dago".

Bira urtarriletik aurrera

Mallabitarrak 2024an ekingo dio lan berriaren zuzeneko aurkezpenari. Irigarri dituen datetan ere ikusten da dena emateko prest bueltatu dela. Urtarrilaren 2an Bilboko Euskaldunan emango du lehenengo kontzertua, eta, horren ondoren, Donostiako Kursaallean (birritan), Gasteizko Principal antzokian eta Iruñeko Baluartan ariko da. Horrez gainera, Bartzelonan (Apolo) eta Sevillan ere emango ditu kontzertuak.

Beraz, mallabitarra gogotsu dago kontzertuetara bueltatzeko. Hala ere, erronka handia izango du aurretik. Aurreko biran 116

kontzertu eman zituen, eta horri neurria hartzea gustatuko litzaioke. "Ez da erraza errepideko bizitza eta norbere buruaren zaintza uztartzea. Begira Miley Cyrus-i. Bira gehiagorik egingo ez duela esan du. Nire bira bat edo bere bira bat ezin dira alderatu, jakina, baina bira bat

'Cerodenero' abenduaren 8an kaleratuko da; beraz, primizian eskuratu ahal izango da Durango Azokan

Izaro artistalk lan berria zuzenean aurkezteko birari ekingo dio urtarriletik aurrera

egitea neuretzat ere oso nekeza da. Lo gutxi egiten duzu eta ia ez zaude etxean. Urduri ere egoten zara, kontzertuak dituzulako. Oreka bat topatu behar da. Hori bai, nire alde, lantalde ederra dudala. Leku guztietara elkarregaz joaten gara, eta horrela errazagoa da", nabarmendu du.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

1^o OSOLATZA IZAN DA
Xabier Mendiguren (Elkar)

2^o JUANA
Jon Artano (Elkar)

3^o LIRIO ZURIA
Fabcaro & Didier Conrad (Salvat)

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO TXOKO ALOKAIRUA

688 864 975
zuretxokoa@gmail.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komentukale 23 behe, 5. esk. • 48.200 Durango - BIZKAIA

“Soinu aldetik aldaketa handia dago aurreko diskoekin alderatuta, baina Nogenen esentzia nahiko detektagarria da oraindik”

Bide berriak arakatu, Nogen taldeak *Aben Cirkel* disko berria ondu du. Ibilbidean hainbat ekoizle izan dituzte bidelagun, eta bakoitzak bere estiloa txertatu die. "Nahi" zuten eta "behar" zuten aldaketa da, eta gustura daude emaitzagaz



MARIO LEZAUN

AHOTSENEA • JOSEBA DERTEANO

Nogen talde donostiarrak bere ibilbideko hirugarren lan luzea aurkeztuko du Ahotsenean, abenduaren 6an. Lan berriko abesti batzuk ere entzun ahal izango dira Plateruena Kultur Aterpean. Orain arteko lanik anbiziotsuena da, bai musikalki, bide berriak arakatu dituztelako, eta baita ekoizpenari dagokionez ere, hainbat ekoizlegaz lan egin dutelako. Beste nobedade bat da Ane Negueruela abeslaria taldera bueltatu dela. Alex Irazusta taldeki-deak erantzun die galderei.

Zelakoa izan da Ane Negueruelaren itzulera? Sasoi bateko kimikak hor jarraitzen du?

Esango nuke Ane Negueruela inoiz ere ez dela joan erabat. Lagunak gara betidanik. Nahiz eta ez zegoen taldean abesten, ikasketak zirela-eta kanpora joan zelako, beti

geratu izan gara beste plan batzuk egiteko. Hartu-eman mantendu dugu. Talderako itzulera beretzat guretzat baino traumatikoagoa izan dela uste dut. Berak taldea utzi zuenean, beste maila batean geunden edo gauzak beste modu batera egiten genituen. Berak dio orain askoz ere serioagoak garela, hainbat alderditan. Lan egiterakoan, taldea asko profesionalizatu dela komentatzen du. Gainerakoan, guretzat ilusioa berreskuratzeko prozesu bat bezalakoa izan da. Gogora ekarri digu zergatik sortu genuen taldea; musika egiteko lagun talde bat bezala elkartu ginen eta oroitzen horiek ekarri dizkigu.

Aben Cirkel deitzen da disko berria. Danieratik euskarara itzulita: zirkulu irekia. Zer adierazi gura duzue izen horregaz?

Izena aukeratzea izan zen disko

honetarako egin genuen lehenengo gauza. Argi genuen izena, lehenengo abestia idatzi aurretik ere. Aneren itzuleraren harira, ideia horri bueltak eman genizkion: gauzak ezin ditugula inoiz itxiztat eman, eta zirkuluko puntu batean edo beste batean egon, gauzak desberdin ikusten direla. Ideia horri tiraka hainbat abesti irten dira. Zazpi abestiek zirkulu horren puntu desberdinak islatzen dituzte.

Lan berriari buruz honako hau aipatu duzue: "Aldaketa dator. Prestatu beharriak leku berriak ezagutzeko". Zeintzuk dira toki berri horiek?

Lehenengo eta behin, gure baitan egindako aldaketa da aldaketarik nagusiena. Guk geuk lan egiteko orduan eman nahi genituen aldaketa horiek. Orain arte, abesti guztiak autoekoiztuak izan dira. Oraingo honetan, ekoizle desberdinekin lan

egin dugu, lehenengo aldiz. Zehazki, lau ekoizlerekin aritu gara. Hor jada aldaketa handia dago, ez bakarrik emaitzan, baizik prozesuan bertan. Gero, noski, hainbat ekoizlerekin arituta, abestietan igarri egiten da. Soinu aldetik aldaketa handia dago aurreko bi diskoekin alderatuta, nahiz eta Nogenen esentzia nahiko detektagarria den oraindik. Zazpi abestietako edozein entzunda, esan daiteke: "Hor atzean Nogen dago". Hori polita dela uste dut, eta baloratzeko modukoa. Baina, era berean, abestiak oso desberdinak dira; ez aurreko diskoekin konparatuta bakarrik, baita disko honetan bertan eta euren artean ere. Aldaketarekin asmatu dugun? Jendeari gustatuko zaion? Ez dakit, diskoa entzuten duenak esan beharko du, baina guk behar genuen eta nahi genuen

aldaketa da. Egindako lanarekin ehuneko ehuneko gustura gaude eta hori gutxitan gertatzen da. Normalean, disko bat kaleratzean, badago zerbait beste modu batera esan nahi izango zenuena edo aldatu nahiko zenuena... Alde horretatik, sentsazio beteagoa geratu zaigu oraingoan.

Urte biko prozesua, ekoizle askogaz lan egitea, aldaketak... Diskoa kaleratu ondoren, sentitu duzue halako askatasun sentsazorik?

Bai, erabat. Horrelaxe izan da. Lanik gehien egin dugun diskoa da eta bukaerarako luze egin da, daukagun guztia eman dugulako. Ez dakit 'nekatuta' den ondoen definitzen duen hitza; diskoa kaleratzeko grinatsu geundela esango nuke. Baina oso pozik eta harro gaude egindako lanarekin. Atera dugun diskoa egin genezakeen lanik onena da.

Guk nahi genuen eta behar genuen aldaketa da. Egindako lanarekin ehuneko ehuneko gustura gaude eta hori gutxitan gertatzen da

Oraingoz zein da jendearen aldetik jaso duzuen feedbacka?

Feedbacka oso ona da. Benetan harrituta eta oso esker oneko gaude. Horrelako aldaketa handiaren aurrean jendeak emandako babesak harritu egin gaitu. Diskoa atera eta lehenengo egunetik jaso ditut mezuak. Gainera, oso mezu desberdinak dira. Sare sozialetan galdetu dugunean ea zein den gehien gustatu zaien abestia, bakoitzak abesti bat aukeratzen zuen. Ez dago bat bestearen gainetik nabarmendu duten abesti bat. Hori esanguratsua iruditzen zait. Lan konpletoa dela esan digute eta horrek asko poztzen gaitu.

Arlo pertsonalean, taldeko gitarrista legez, disko honetan eremu berriak deskubritzeko aukera izan duzu?

Konposaketa Markelen [Markel Idigoras, taldekidea] eta bion ardura izan da, eta abentura bat bezala bizi

ERLIA
CONTENEDORES
www.contenedoreserlia.com

- Hondakinak kudeatzeko instalazioa.
- Obra eta industriako hondakin kudeaketa eta garraioa.
- Hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204

ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

UNAI GARAY

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • unaigaray@yahoo.es

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

izan dugu. Abesti bakoitzak zortzi bizi izan ditu. Lehenengo proposamenetik hasi, ekoizlearekin probak egitetik jarraitu eta azken emaitzaraino. Gainera, ekoizle bakoitzak bere estilo markatua du eta, hain zuzen ere, horregatik jo dugu eurengana. Adibide bat jarriko dizut. Disko honetarako sortu genuen lehenengo abestia *Guztia Edo Ezer Ez* izan zen eta denboran zehar makina bat egitura desberdin izan ditu; esandakoa, zortzi bizi. Abesti horren lehenengo proposamena folk estilokoa zen, gero momentu batean indie-rock estilora pasatu ginen, ondoren ere garatzen jarraitu du... Konposatzaile modura, abestiek eta instrumentuekin betiko tratamendua izan dugu, baina gero, egia esan, amildegira erortzen utzi dugu geure burua nolabait esateko, ekoizle bakoitzak bere esparrura eraman zitzaizkien abestiak. Disko berria erronka bat izan da guretzat, geure buruari jarritako erronka bat, musikari modura noraino hel gaitezkeen jakiteko. **Ahotsenean aurkeztuko duzue diskoa.** Bai. Aurretik beste birritan egon gara, eta beti oso ondo. Azkenean, 2018an. Abenduaren 6an egongo gara eta abesti batzuk zuzenean jotzeko aukera izango dugu.

Lanean barik bisitari legez ere egonda zaude Durangoko Azokan?

Bai, noski. Eta anekdota bat kontatuko dizut. 2005ean, edo buelta horretan, gurasoekin joan nintzen. Sasoi hartan, Keu Agirretxeak gitarra elektrikoa jotzen ikasteko lehenengo pausoen inguruko liburu-DVD bat atera zuen. Hori erosteko eskatu nien gurasoei. Ordura arte, gitarra klasikoa jotzen nuen eta nire fantasia gitarra elektrikoa jotzea

“Egia esan, amildegira erortzen utzi dugu geure burua nolabait esateko, ekoizle bakoitzak bere esparrura eraman zitzaizkien abestiak”

zen. Badakizu, rock izar handiek bezala, eta urte hartan Olentzerok nire lehenengo gitarra elektrikoa ekarri zidan.

Durangoko Azokaren ondoren, zein da zuen plana? Bira bat hasiko duzue?

Udaberrian Espainiar estatutik bira bat egingo dugu. Hamar-hamabi bat kontzertu edo gehiago izango dira. Maiatz-ekain bueltatik urtea amaitu arte Euskal



Ezkerretik hasita, Markel Idigoras, Ane Negueruela, Alex Irazusta, Olatz Cuevas eta Jokin Guilisagasti, Nogen taldeko kideak. MARIO LEZAUN

Herrian ibiliko gara. Udaran plazetan eta jaialdietan, eta udazkenean aretoetan.

Hiru abesti La M.O.D.A. taldeko gitarrista den Nacho Mur-ek ekoiztu ditu. Zelako esperientzia izan da?

Oso ona. La M.O.D.A. taldeko kideekin dugun hartu-eman ez da berria. 2017an, lehenengo disko luzea prestatzen ari ginean, La M.O.D.A.-rekin kolaborazio bat egiteko oso abesti egoki bat genuela iruditu zitzaigun.

Proposamenarekin eurengana joan ginen, gure errespetu eta miresmen guztiarekin. Gustatu zitzaie eta horixe izan zen gure lehenengo hartu-eman. Gerora beti mantendu izan dugu elkarrekiko begikotasuna. Adibidez, 2022an Donostiako Aste Nagusian jo zutenean, guk anfritrioi lanak egin genituen. Gure soziedadean bazkaldu zuten. Egun horretan ezagutu genuen Nacho Mur, taldeko gitarrista.

Ekoizle lanetan zebilela azaldu zigun, Valeria Castrorekin, Luis Fercan-ekin... Orduan bururatu zitzaigun lehenengoz berarengana jotzea gure diskoa ekoiztera. Asko gustatzen zaigu bere estiloa. Disko berriko hiru abesti egin ditugu berarekin: *Glastonbury*, *Abendua* eta *Galdu Duenari*. Bere estiloan, abestiei zuku asko atera diela uste dugu. Profesional itzela da, eta pertsona modura are itzelagoa.

EROSKI euskararekin, lehenengo hitzetik.

1975etik, lehenengoak produktuak euskaraz izendatzen.



58. DURANGOKO AZOKA
2023ko abenduaren
6tik 10era



- OSTALARITZA GIDA -



MIKELDI

Kalebarria 7,
Durango
Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera
haundia giro ezin hobean.



ARRIPU

Txibitena 9,
Durango
Tel.: 602 387 814

Gure berezitasuna
tortillak dira, 19 zapore
ditugu aukeratzeko
eta denak primerako
osagaiekin egindakoak,
noski.



IBAIZABAL

Ibaizabal Etxetaldea,
2B Durango
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak,
hanburgesak, ogitartekoak
eta kazolatxoak.



ABARKETERUENA

Iturritxo 6 - Txanporta
plaza, Abadiño
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta
asteburueto menu
bereziak. Goizetik
pintxoak. Giro oso ona.



XIBERU

Zezenia Gallartzagoitia 9,
Zornotza

Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero,
pintxopotea ostegunero
eta afariak astebururo. Giro
alaia eta atsegina. Ongi
etorri Xiberura.



GAUARGI

Dantzari 4 behea,
lurreta

Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla
bereziak. Barikuetan
mollete eta errazioak.
Domeketan rabak eta
askotariko errazioak.



AMALUR

Barrenkale, 19
Durango

Tel.: 692 150 199

Berezitasuna gildetan
eta bermutetan. Terraza
handia udaletxe parean.



ZERO

Andra Mari 6,
Durango

Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona
gure askotariko pintxoak,
asteburueto afariak, eta
gure mojito eta gin-tonic
bereziak.

OSTALARITZA GIDA

Koldo Berria

Itsaski entsalada sagar ali-oli arinarekin
Trufaz beteriko arrautza 65ºtan onddoekin

Bakailaoa txangurruarekin
Txahal txuleta zatitua
Etxeko postrea

42,00 € pertsonako
(%10eko BEZ gabe)

Menuak mahai osokoa izan behar du
Ez ditu edariak barne hartzen

Karta ere badaukagu

KOBIKA

San Inazio auzunea, 8
Durango

Tel.: 946 810 003



HERRIA

Askatasun etorbidea 28,
Durango

Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura goizeko 6etik aurrera zabalik, zapatuetan 08:00etatik aurrera eta domeketan 08:00etik aurrera. Pintxoak eta gosariak. Asteburuetan rabak. Giro polita! Zatoz!



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonandia plaza,
Durango

Tel.: 946 200 007

Baserri bat baino zerbait gehiago. Bokatak eta pintxoak egunero. Euskal preso eta iheslariak azokara!



Astxiki Kalea, 8
Durango

Tel.: 633 292 8 3

Postreak, bokadilloak, errazioak eta momentuan eginiko jakiak eskaintzen ditugu.



SORGIN

Ibaizabal 4C,
Durango

Tel.: 678 586 143

Terraza berria, pintxo berriak, txibierroak, janari minak, errazioak, musika zuzenean. Zatoz eta goza gaitzazu!



BOTAFUMEIRO

Olleria 10, Durango

Tel.: 946 216 036

Galizia zatitxo bat Durango, bere espezialitateekin: Olagarroa, arrainak, eta haragia txingarretan.



AXPE

Plateruen plaza
Durango

Errazioak, bokadilloak eta giro paregabea Azoka egunetan!



BASA

Eramateko janaria

Untzillatx 9,
Durango

Tel.: 747 421 104

Bertako eta beste herrialde batzuetako janaria, etorri ta eraman kalean zein etxean jateko. Landako gunetik 5 minutura.





Euskal Dendak 27. aldia egingo du aurten, eta abenduren 6tik 10era egongo da zabalik.

Euskal Dendak iaz baino postu gehiago izango du; eurentariko sei Durangaldekoak dira eta hiru estreinakoz joango dira

Artisauen azokak 54 stand izango ditu, aurreko urteetan baino hiru gehiago; Merkatu Plazako espazioa berrantolatu egin dute denei tokia egiteko

EUSKAL DENDA • JOSEBA DERTEANO

Euskal Denda indarberrituta bueltatuko da Durangora. Aurtengo 27. edizioan, artisauen kopurua handitu egin dute. 54 postu egongo dira guztira, aurreko edizioetan baino hiru gehiago.

Urtero legez, Arbaso Elkarteak antolatu du Euskal Denda. Aurten aurreko urteetan baino postu gehiago egotea ez da kasualitatea. "Benetako ahalegina egin dugu eskaintza nahiz parte hartzaile kopurua handitzeko. Parte hartzeko eskaera ugari jasotzen dugu eta badakigu zelako garrantzia duen artisauen eta ikusleen arteko topaketa honek", adierazi dute elkarteko kideek. Postu denei tokia egiteko, Merkatu Plazako espazioa "berrantolatu" egin behar izan dute.

Euskal Denda abenduaren 6tik 10era egongo da zabalik, honako ordutegian: 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 20:30era (domekan 20:00ak arte).

Zenbakiari dagokienez, ohiko den moduan, Bizkaiko sektoreak izango du ordekaritzarik handiena, 29 postugaz. Hurrengo Gipuzkoa dator, 14 postugaz. Nafarroatik zazpi etorriko dira, Arabatik hiru, eta Lapurditik bat.

Askok lehenengoz zapalduko dute Merkatu Plaza. Parte hartzaile guztietatik hamabost lehenengoz etorriko dira. Horietariko batzuk sortu berriak dira, gainera. Durangaldeak sei postu izango ditu: Eneko bitxiak, Gorakat, Restaurarte, CY Jantziak, Amalur eta Ve-

letta. Azken hirurak nobedadea dira eta estreinakoz egongo dira Euskal Dendan.

Eskualdeko hiru berri

CY Jantziak-ek euskal tradizioagaz loturiko jantziak eta tresnak eramango ditu: kaikuak, festara-

ko baserritar jantziak, doluzkoak edo dantzakoak, eta tradiziozko prakak, alkandorak... Zornotzako Euskal Herria enparantzan dute denda. Durangoko Velatta-ren produktu izarrak toteak eta motxilak dira. Eskari bidez lan egiten du, Interneten (www.veletta.shop)

eta sare sozialetan Instagramen (@myveletta). Nodedadeekin amaitzeko, Amalurrek makrame teknikaren bitartez eginiko bitxiak eta mota guztietako arropak eta poltsak eramango ditu.

Eskualdeko beste hiru artisauak ohikoak dira Euskal Dendan. Eneko Unzaluk berak eginiko mota guztietako bitxiak erakutsiko ditu. Elorrioko Gorakat dendakoen poltsek eta motxilek



CY Jantziak-ek euskal tradizioagaz loturiko jantziak eramango ditu.

Veletta, CY Jantziak eta Amalur lehenengoz doaz; Restaurarte, Unzalu Bitxiak eta Gorakat ohikoak dira

ere beteko dute beste stand bat. Aurten, seigarren parte hartzea izango dute. Azkenik, Restaurarte zaharberritze tailerrekoak ere hainbat bider egon dira Euskal Dendan, eta 2010ean standik onenaren saria jaso zuten.

Antolatzaileen esanetan, nekazaritzako elikagaien sektoreak leku "garrantzitsua" izango du aurten, hainbat postugaz: Gorrotxategi txokolatea, Garrarte garra-piñatuak, Lorez Lore eztea, Katealde pateea eta Ziorregiko gazta.

AMALUR • J.D.

Ainhoa Gangoitia Mazorriagak (Abadiño, 1992) lehenengoz parte hartuko du Euskal Dendan, eta azken asteetan buru-belarri lanean ibili da bertan erakutsiko dituen artikuluak sortzen. Mota guztietako arropa (alkandorak, soinekoak, gonak...), makrame teknikaren bitartez eginko bitxiak, poltsak eta gehiago egongo da salgai Amalur izeneko postuan.

Zelan sortu da Euskal Dendan egoteko aukera?

Eixuk Andra Mariko elizpean antolatzen duen azokan egonikoa naiz. Euskal Dendak planteamendu berria eskatu dit, azoka handia delako eta lau egun irauten duelako, goiz eta arratsalde. Sekula ere ez naiz egon lau eguneko azoka batean. Iraupenak stock bat izatea eskatzen du. Lan horretan buru-belarri aritu naiz. Gauza asko pentsatu behar dia. Esaterako, zer neurriko arropa eraman? Normalean, neurrirako arropa sortzen dut eta. Edo, zenbat arropa eraman? Esperientzia berria da niretzat eta lan handia eskatu dit. Stock potentea eramango dut. Gainera, jendeak esan dit oso ondo saltzen dela.

Zer eramango duzu?

Gehienbat arropa eramango dut. Loneta eta panazko peto luzeak eta pichi-ak, belusezko jertseak, mahuka luzeko alkandora eta kamisetak, soinekoak, gonak, kamiseta gaineko alkandorak... Baina gauza gehiago ere eramango dut: umeentzako muselinazko mantak, poltsak, makrame teknikagaz eginko bitxiak... Jendeak zer egiten dudan ikustea gura dut. Izan ere, Euskal Denda erakusleiho handia da.

Zelakoak dira poltsak?

Poltsa handiak dira. Neuri gustatzen zaidana sortzen dut eta niri poltsa handiak eta zabalak gustatzen zaizkit, barruan gauza asko sartzeko modukoak eta hondartzara joateko, erosketak egiteko nahiz egunerokotasunean erabiltzeko berdin-berdin balio dutenak. Estanpatu diferenteko poltsak dira.

Zelan ikasi duzu makrame bidezko bitxiak egiten?

Hego Amerikan urte biko bidaia

“Esperientzia berria izango da eta lan handia eskatu dit. Stock potentea eramango dut”

Ainhoa Gangoitiaren Amalur produktuak lehenengoz egongo dira salgai Euskal Dendan



bat egin nuen, 2017ra arte. Hango artisau asko makrame teknikagaz pultserak, lepokoak eta abar sortzen ikusi nituen. Hango jendeagaz batu eta ikasten joan nintzen. Gero teknika neure gustuetara eta estilora ekarri dut: koloreak, formak... Handik bueltan sortu zen Amalur. Arropa gerora etorri zen. Alkandorak hasi nintzen, eta gero beste arropa batzuekin.

Enkarguz lan egiten duzu gehienbat. Bai. Azkenean pertsona bakoitzak bere neurria du eta bere neurriko

arropak behar ditu. Badaude gorputz estereotipatuko neurriak, baina oso jende gutxi sartzen da estandar horietan. Neurriekin zoratu nintekeela eta, egokiena arropa neurriera sortzea izango zela pentsatu nuen. Orain Abadiñon tailerra dudanetik, errazagoa da. Jendea bertaratu egiten da, neurriak hartzen dizkiet, bezeroak bertatik bertara ikusten eta aukeratzen ditu telak... Lan pertsonalizatuagoa da. Normalean ez dut stock handirik izaten, eskaripean sortzen dut.

Zelakoa da bezeroagaz telak, koloreak, estiloa... aukeratzeko prozesua?

Lehenengo, nire diseinu mota zein den azaltzen diet, marko baten barruan zentratzeko. Ondoren, euren zer gura duten azaltzen didate eta diseinua egiten joaten gara. Koloreak eta telak aukeratzeko ditugu: bolumen gehiago gura bada, tela konkretu batzuk erabili behar dira. Lan espezifikoren bat bada, ezkontzaren baterako-edo, nik lana amaitu aurretik tailerrera etortzen

dira jantziak probatzera, ea soinean gustura geratzen zaien eta zer sentazio duten.

Arropa aldetik, zer da Amalur besteetik bereizten duena? Kalean ikusi eta "hau Amalurrena da", esateko modukoa?

Estanpatu aldetik, loreak. Lorea da Amalurregaz gehien identifikatzen dena. Kolore aldetik, kolore biziak. Jendeak loreak eta kolore biziak Amalurregaz identifikatzen dituela esango nuke.

“Denerik eramango dut. Euskal Denda erakusleiho handia da eta jendeak zer egiten dudan”

Zer tela motagaz lan egitea gustatzen zaizu?

Alkandoretarako gehien erabiltzen dudana tela biskosoak dira, mugimendua izan dezaten gustatzen zaidalako. Alkandoretarako kotoia ere erabiltzen dut lantzean behin, zurrungoia izan gura badut. Gero, erabiltzen ditudan tela motak denboraldika doaz: udaberri-udan batzuk, eta udazken-neguan beste batzuk.

Zeure lanetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Sorkuntza lana da gehien gustatzen zaidana, patro berriak sortzea eta jantzi berriak egitea. Eskariak sortzea ere gustatzen zait: bezeroekin hartu-emanetan egote hori, erritmo lasaia... Stock bat sortzea ere gogoko dut, baina ez da lanik gustukoena. Lan mekanikoagoa da. Gainera, estutasuna eragiten dit, kantitate nahikorik ez daukadala iruditzen zaidalako gehienetan.

Eskari bat egin gura duena zelan ipini daiteke hartu-emanetan zuzagaz?

Onea eta zuzenena Abadiñon dudan tailerrera joatea da, Solokoa 2 kalean. Bestela, Instagramen 'amalurproduktuak' da nire kontua eta hau da nire helbide elektronikoa: amalurproduktuak@gmail.com.

27 EUSKAL DENDA
Euskal Herriko Artisautzaren Azoka

Durangoko Azoka Plazan

2023 Abenduak 6-10
ORDUTEGIA
11:00-14:30 / 16:30-20:30

facebook.com/arbasa
www.euskaldenda.info

Bizkaia DURANGO Durango hamaika anboto Deia GARA ONDA VASCO

HAUR LITERATURA • AITZIBER BASAURI

Aurtengo Durangoko Azokan aurkitu daitezkeen lanen artean *Dakota Txikiren muki bidaiaria* album ilustratua dago. Peru Magdalenak Iraia Okina ilustratzaileagaz batera kaleraturiko albuma. Lehenengoz, autoedizioa ballatu dute etxeko txikienei zuzenduriko lana osatzeko, orain urte bi irabaziriko Durango Sor(-tzaileen)leku Beka probestuta. Magdalenak nabarmendu du mimoz aukeratu dutela emaniko pauso bakoitza, eta oso pozik dago emaitzagaz. Abenduaren 5ean aurkeztuko dute, Durangoko Bizenta Mogel liburutegian, 17:00etan.

Zer kontatzen du *Dakota Txikiren muki bidaiaria* ipuinak?

Dakota Txiki izeneko neskatila batek muki bat du traban, eta arratsalde batean, uste baino luzeagoa den muki hori atera eta atera hasiko da. Mukia leihotik irtengo da eta hortik zehar egiten duen bidaiak kontatzen du ipuinak.

Zelan sortu zen proiektua?

Alaba txikia zenean, mukiak gora eta behera zebilela, asmatu nuen ipuina berarentzat. Eta gero, ipuin kontalari saioetan kontatu izan dut. Ahozko saioetan oso ondo funtzionatu izan du beti, eta, apur bat moldatuta, Durango Sor[-tzaileen]leku bekara aurkeztu genuen. Orain Iraia Okinaren ilustrazio zoragarriekin dator. Biok elkarlanean, muki amaiezina zena muki bidaiari bihurtu dugu. Poza ematen dit horrek, nire lehenengo albuma ere Iraiagaz atera nuelako: *Ilania*. Orain berriro elkartu gara. Oso interesgarria izan da, oso ilustratzaile fina, artistikoa delako. Gainera, beti dabil bere lengoiaia estetikoak moldatzen. Elkartzerakoan erraz konektatzen dugu, eta bekaren aukera etorri zenean era naturalean jo nuen berarengana.

Sormen prozesuan zehar moldatuz joan den istorioa da orduan.

Ahozko ipuin bat mutetzen joaten da, aldatzen. Hasieran ipuin bat da, eta kontatzen zoazen neurrian norbera ere aldatuz doanez, ipuina ere moldatuz joaten gara. Bada, laino batean zihuan ipuina zena liburura ekarri dugu, eta orain hor geratuko da. Gainera, lurreratzen

“Esan daiteke barruan duguna ateratzeari buruzko ipuin bat dela; atera eta doala mundura”

Peru Magdalenak *Dakota Txikiren muki bidaiaria* album ilustratua kaleratu berri du; Durangoko Azokako Durangaldeko argitalpenak erakusmahaietan egongo da salgai



horretan, Iraiak eta biok elkar adosteko aukera izan dugu. Pozik eta trankil nago, zelanbait testatuta dagoen ipuina delako. Umeei asko gustatzen zaie, oso plastikoa eta jolastia da, irudimen handikoa. Mukiak ukitzen ditugu, eta horrek umeak emozionatu eta kitzikatu egiten ditu. Mukiak gure lagunak dira, barruan duguna ateratzen laguntzen digute horretaz berba egiteko. Inoiz lagunek eta ezagunek esan didate oso erabilgarria dela umeak mukiak ataritzen has-

ten direnerako. Baina, sinbolikoki, mukia metafora lez hartuta, esan daiteke barruan duguna ateratzearen inguruko ipuin bat dela; atera eta joan dadila mundura, zabaldu dadila, bidaiatu dezala, partekatu dezagun... Mukia, eta mukia ez den hori ere bai, atera eta beldurrik barik partekatzeko gonbitea dela esanenezake.

Ettxeko txikienei zuzenduriko ipuina da.

Album bat da, album artistikoa. Lehenengo hartzaile naturalak

ume txikiak dira. Gurasoek seme-alabekin partekatzeko ipuina dela esan daiteke. Testu gutxi dago, irudiak du presentziarik handiena. Gainera, ilustrazio batzuek bigarren irakurketa baterako ematen dute. Umeak irakurtzen ikasten hasten direnerako tipografia argia ipintzen ere ahalegindu gara eta egitura errepikakor bat du, neurri aldetik.

***Ilania eta Txomintxo eta Perutxoren abenturak* sortu dituzu aurretik. Bazu zerikusirik horiekin?**

Dakota Txikiren muki bidaiaria plastikoa da, ia amets bat lakoa. Iru-dimen gehiago du eta ilustrazioak pisu handiagoa hartzen du. Sortze bulkada baten modukoa izan da eta oso pozik nago.

“Mukia, eta mukia ez den hori ere bai, atera eta beldurrik barik partekatzeko gonbitea da album hau”

“Poesia da nire genero kutuna, oinarrizkoa. Baina haur literatura oso hurbil dago poesiaren bestelako orden eta sormen horretatik”

Narratiba eta poesia ere egin dituzu, haur literaturaz gainera. Non sentitzen zara erosoan?

Poesian hasi nintzen, hori dut bezekoa. Poesia da nire genero kutuna, oinarrizkoa, eta uste dut horretan amaituko dudala. Baina haur literaturak oso hurbil dago poesiaren bestelako orden eta sormen horretatik. Helduen literaturan ere gustura jarduten dudak arren, helduen artean kamuflaturiko ume bat naizela uste dut. Gustura nabil, baina puntu bateraino; ez hainbeste idazterakoan, baizik eta ondoren etortzen den intelektualizazio prozesuan. Ez naiz oso intelektuala eta kostatu egiten zait zenbait intuizio berbetan ipintzea. Momentu honetan umeentzako sormen tailerrak ematen ere banabil. Nire burmuina erraz joaten da umearoko unibertso horretara.

Durangoko Azoka plaza berezia duzu?

Bai. Egun politak dira. Egunotan kanpoko lagunekin batzen naiz, beti etortzen dira etxera, eta pozik egoten naiz. Oso gustura geratzen naiz Durangon: liburu artean, aurkezpenetan, zoezer bazkaldu, parranda apur bat egin...

ESKAINNTZA IZARRA

Sofa eraisgarria +
135 x 190 cm-ko koltxo
biskoelastikoa.



395 €
(33 € hilabetean)

**12 hilabete
interesik
gabe**

**Colchonerías
Bengoa**

www.colchoneriasbengoa.com
info@colchoneriasbengoa.com

Eramatea, muntatzea eta altzari zaharrak kentzea DOAN

Frai Juan Zumarraga, 19 (Durango) - 944 650 859
San Pedro, 35 ezk. Ixerango (Zornotza) - 946 855 662



Raquel Calvo eta Zuriñe Lopez de Sabando.

“Gazteen kuriositatea piztu gura dugu, zer gertatu zen galde diezaieten nagusiagoak direnei”

Raquel Calvo durangarrak eta Zuriñe Lopez de Sabando gasteiztarrak Durangas aurkeztuko dute Irudienean

DOKUMENTALA • EKAITZ HERRERA

Huts laborategiko kide biek Durangas dokumentala josi dute, Durangoko emakumeen bizipenetatik tiraka. Herriko emakumeen memoria bizia jaso eta isilean egoniko bizipen horiek argitara atera dituzte. Estreinaldia abenduaren 10ean izango da, 11:00etan, Zugaza zinemian.

Martxoan aurrestreinaldia egin zenuen Zugazan. Oraingo hau zertan izango da desberdina?

Filma Zugazan aurkeztu genuenean, guztiz amaitu barik ze goen. Martxoaren 8ko aldarrikapenen testuinguruan aurkeztu genuen, ikus-entzunezkoan parte hartu zutenen aurrean. Oso harrera ona izan zuen. Aretoa bete egin zen eta gogoan dut jendea berba egiteko gogoia piztu zitzaioala proiektioaren ondorengo luntxean. Askori euren bizipenak, memoriak eta kontatzeko gogoia piztu zitzairen. Orain dela gutxi amaitu dugu dokumentala eta Azokan aurkeztuko duguna estreinaldia izango da. Behin betiko dokumentala.

Zelakoa izan da sortze prozesua?

Proiektuaren helburua ez zen dokumental bat egitea, bere horretan. Gehiago zen dokumentazio lan bat egitea, Durangoko emakumeen memoria jasotzea. Eta horrek oso abiapuntu zabala zeukan. Tailer batzuk egin genituen Andragunean. Gauzak irteten hasi ziren, eta hortik dokumental bat egin genezakeela ikusi genuenean, “egin egingo dugu”, esan genuen. Muntaketa prozesuan geundela topatu eta

egonkortu genuen dokumentalaren haria.

Zenbat emakume elkarrizketatu duzue?

Filmean hamar bat emakumeren testigantzak jaso dira. Andraguneko tailerretan parte hartu zutenak 10-15 izango ziren. Modu batera edo bestera, 50 bat emakumek parte hartu dute.

Durangoko emakumeen errealitateak badu berezitasunik edo desberdintasunik gainerako errealitateen aldean?

Esango nuke badaudela gauza orokor batzuk, leku guztietan antzerakoak izan daitezkeenak. Baina bizipen bakoitzak bere berezitasuna du. Adibidez, dokumentalean guk geuk ezagutu ere egiten ez genituen istorio bi jaso ditugu. Harrirta geratu ginen. Gogoan dut amari eta familiako kideei ere galdetu niela gaiari buruz, eta bai, gogoan zuten. Elkarrizketatuetariko batek dioen moduan, isilduriko istorio asko dago Durangon. Gauza askori buruz ez da berbarik egiten. Istorio gogorak kontatzerakoan, argi ikusi dugu gauza batzuk isilean geratzen direla.

Durangas ikustera doanak zer ikusi eta ikasiko du?

Aurrestreinaldiak adin bateko emakume askori barrukoak kontatzeko gogoia piztu zien moduan, Durangas ikusita gazteagoak diren belaunaldiak euren etxekoei, adinez nagusiagoak direnei, galdezko gogoia piztea gura genuke. Dokumentalak kuriositate hori pizten lagundu dezakeelakoan nago.

EUSKADI LITERATURA SARIAK '23

Ezagutu irabazleak

e EUSKADI LITERATURA SARIAK
PREMIOS EUSKADI LITERATURA

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GEREDIAGA • JONE GUENETXEA

Azokak duen lan ikusezinaren atzean, Josu Perez Arribas (Elorrio, 2003), Iune Ruiz Tagle (Berriz, 1999) eta Oihane Alava Bernaola (Durango, 2002) dabilta beste batzuen artean. Aterako kontaketa martxan da eta Gerediagako bulegoan igartzen dira ilusioa eta urduritasuna.

Zelan doa Azoka hasteko atzera kontaketa?

Josu Perez: Igartzen da lan kopurua igo egin dela, baina jendea gogotsu ikusten dut.

Iune Ruiz: Parte hartzaileengan ere gogoia sumatzen da, eta bulego-koon artean ere bai. Lehen ez zegoen atmosfera bat dago, ikusten dugulako Azoka heltzen dabilela.

Oihane Alava: Askok idazten digutenean horixe esaten digute, Azoka heltzeko gogoia dutela.

Azokaren antolaketan zabiltzaten lehenengo aldia da?

J.R.: Hiruron lehenengo azoka da, bai. Nik neuk kuriositatea daukat zelan joango den jakiteko.

Orain arte kanpotik ikusi duzue Azoka, baina aurten barrutik ere bai. Imajinatzen zenuten hainbeste gauza antolatu beharko zenutela?

J.P.: Banekien gauza asko zeudena Azokan, baina horri egitarauko ekitaldi guztiak gehitu behar zaizkio. Gauza mordoa antolatu da.

I.R.: Lan asko izango zela imajinatzen nuen, baina ez hainbeste jende beharko zenik Azoka egiteko. Banekien Azoka handia zena, baina hainbeste jende horren atzean egotea, askotan aurpegiak ipintzen ez dizkiegunak, ez nuen espero. Barruan egonda, eskertze-koa da jende horregaz guztiagaz hartu-eman izatea.

O.A.: Gauza bakar bat antolatze-ko, jende askogaz berba egin behar da, elkarlanean. Ikusten duzu ekitaldi bakoitzaren atzean talde oso bat dagoela.

Zuetariko bakoitza zein arlotan dabil lanean?

J.P.: Ni neu webgunean, egitarauan eta playlista osatzen nabil batez ere. Ezagutzen ez nituen talde eta artista asko deskubritzeko aukera izan dudalako gustatzen zait, batez ere, lan hau. Gatxa da horrelako taldeak beste leku batzuetan

“Etorri Azokara gauza berriak deskubritzera eta kuxkuxeatzera”

Josu Perezek, Oihane Alavak eta Iune Ruizek Azokaren bihotzean dihardute Gerediaga elkarte



ezagutzea. Talde txikiak dira, baina oso onak. Musika arloan aniztasun handia dago. Punk eta rock talde asko dago. Baina, baladak jotzen dituztenak ere bai. Elektronikaren mix asko dago, baita autotuneagaz ere. Nahasketa asko dago. Web orrian eta Spotifyn playlista dago eta jendea hor barruan arakatzera animatzen dut.

I.R.: Batez ere standen antolaketan nabil. Horrek lan handia ematen du. Ahalegintzen gara denei ahalik eta aukerarik onena ematen, eta, horretarako, sortu daitezkeen ilarak kontuan hartu behar dira musikaren plazan. Landako Gunea

oso handia da, baina geroago eta parte hartzaile gehiago dago, eta jende asko mugitzen duten artistak daude. Azken hauek izkinaren batean ipintzen ahalegintzen gara, jende-ilarak hobeto bideratzeko. Hala ere, hain oihartzun handia ez dutenei ere aukera polit bat ematen ahalegintzen gara, eta uste dut aurten igarriko dela hori. Txoko antzeko bat ematen ahalegintzen gara eszena beretsuan mugitzen diren artistak batuta. Eta giro polita sortuko dela uste dut. Bestalde, nobedadeen argitalpenen katalogoagaz ere ibili naiz. Beraz, ordenagailuaren aurrean

telefonoa eskuan dudala lan egin dut. Hartu-eman zuzena izan dugu argitaletxeekin, diskoetxeekin eta artistekin.

O.A.: Nire kasuan, Ikasle Goizaz eta azalen lehiaketagaz arduratu naiz. Ikastetxeekin eta irakasleekin hartu-emanen egon naiz. Aurten gauza berezi bat gertatu da, Ikasle Goiza abenduaren 7an delako, jai eguna delako. Horregaz arduratuta egon gara, ez genekielako ikastetxeak etorririko ziren. Azkenean, 400 bat ikasle etorririko dira eta tailerrak beterik daude. Zazpi ikastetxetako ikasleak datoz Euskal Herri osotik.

Zukan Barrutik taldearen taile-rreran, esate baterako, 160 gaztek eman dute izena. Bideojokoek ere harrera ona dute. Azalen lehiaketari dagokionez, sormen maila oso altua da.

Zer da Azoka zuentzat? Durangaldekoak izanda, zein oroitzapen duzue?

J.P.: Azokak negua iradokitzen dit. Kalean hotz eginda, Azokaren berotasunera sartzea datorkit bu-

Parte hartzaileengan ere gogoia sumatzen da, eta bulego-koon artean ere bai. Lehen ez zegoen atmosfera bat dago

rua. Oroitzapen asko ditut, txikitant erosiriko mahai joko batzuk, esate baterako. Liburuak ere bai. Orain, nagusiagotan, lagunekin joateko eta gauza berriak ezagutzeko esperientzia lez ikusten dut. **I.R.:** Azoka urteroko plan bat da niretzat. Txikitatik joan izan naiz. Urtero paseo bat ematen dut eta ezin diot tentazioari eutsi. Gogoan dut gaztetxotan amagaz Ahotseneara joan nintzela Su Ta Gar entzutera. Gero, kalean ikusi genituen eta amak sinadura eskatzera animatu ninduen. Zein urduri ipini nintzen! Sinadura lortzeak ilusio handia egin zidan. Horixe da Azokaren gauzarik politenetariko bat. Sortzaile bategaz hartu-eman zuzena izatea.

O.A.: Urterokoa da, txikitatik ikastetxetik joaten ginen. Kultura, aisia eta euskara datozkit burura. Euskara sustatzeko ere balio du eta hori oso garrantzitsua da.

Zer mezu bidaliko zeniekete Durangaldeko herritarrei?

I.R.: Animatu eta etorri Azokara gauza berriak deskubritzera eta kuxkuxeatzera. Kanpokoentzat polita izan daiteke, Durango zein Durangaldea ezagutzeko.

O.A.: Aurten 'fantasia' da leloa, eta horrela da, fantasia bat izango da. Oso ondo antolatuta dago, izkina bakoitzean lan asko dago, stand oso bereziak...

The advertisement is divided into three main sections. On the left, a group of people is sitting on the floor, looking at a large, illuminated display of marine life. In the center, a large, detailed skeleton of a marine animal is displayed. On the right, a person is seen from behind, looking out at a large tank filled with various fish. The text 'Ikasiz Goza Ezazu!' is written in a stylized font at the top right. Below it is the website 'www.aquariumss.com' and the logo for 'AQUARIUM SAN SEBASTIAN'.